

**Kerexeta**

**KUNBAN**

••••

**KEREXETA**

**KUNRAN**

**1989**

NIHIL OBSTAT:

Garaigordobil-dar Bitor, Gotzaiña.  
Urkiola-n, 1988, orrillak 30.

Euskeratzaillea:

© Kerexeta-tar Jaime, abadea.  
Elizburu, 24.  
48230 ELORRIO (Bizkaia).  
Tel. 6820012.

WILSEN EDITORIAL

Muelle de Olabeaga, 21.  
Tel. 4418362.  
48013 BILBAO.

I.S.B.N.: 84-85918-39-8  
Depósito Legal: B1-359-89

PRAKOR Industrias Gráficas.  
Muelle de Olabeaga, 21.  
48013 BILBAO.

## KUNRAN-GO ESKU-IDAZKIAK

### Esenioak

Kunran-go esku-idazkiak, Jesukristoren aldiko judar-bakartetxe bateko idazki-sorta dira. 1947garren urtean agertu ziran leenengoak —ez-ustez agertu be— Itsaso Illa deritzan ipar-sartzaldeko kobetan, Kirbet Kunran izeneko tokian.

Kirbet Kunran izenaz ezagutzen ziran bakartetxe orma-ondakiñak, 1951 eta 1956garren urte-arteetan izan ziran aztertuak, leenengo sorta 1947an aurkitu ta arein antxiñakotasuna ezagututa gero.

*Esenioak* izeneko alderdikoena ziran.

Plinio Zaarrak eta Flabio Josefo istorialariak idatzi ebezan arei buruzko barriak. (Gaur egunean, orraitio, idazle batzuek ez dabe areintzat *esenioak* izena onartzen, *kunrandarrak* baiño.)

*Esenioak* itza "oisiaioi" gerkeratik dator, latiñera itzulita, eta izen orrek "izate-ikastunak" adierazoten dau.

Plinio-k ezarri eutsen izen ori; baiña oker ezarri be, arein elburua ez zan "izatea ikastea"-ta.

Lagunarte baxotxa gizonezko gutxiak osotzen eben, baiña bakartetxeak Palestina guztian egozan zabaldua, Jesukristoren egunetan guztiz lau millaren bat lagun izateraiño. Lagunarte nagusia Kunran-goan zan. Ez dira agertzen bein be Alkartasun Barrian.

Kunran-go bakartetxe ori, Kristo jaio aurretiko 134-104 urte-arteetan izan zan eregia.

Birritan izan zan ondatur: Kristo jaio baiño 31 urte leenago, lurrikara batek ondatur eban, eta, Kristo jaio ta 68garren urtean, erromatar gudarozteak, Jerusalem ondatur eben urte berean.

Bigarren ondapen ori gaiñera etorkiela konturaturik, bakarti areik, bakartetxe-ondoan egozan amaika kobetan papiru ta narruki [*pergamiñu*]

batzuek gorde ebezan, lapiko-barruetan.

Gaur egunean, Jerusalemgo museu aundi bitan dagoz.

### Esku-idazkiak

Esku-idazki orreik balio aundia be aundia dabe, Alkartasun Zaarreko liburu batzuek obeto ezagutzeko, baita Joan Bateatzaillearen, Jesusen eta Elizearen ekitaldiko erlejiño-giroa argiago somatzeko be.

An agertzen dira Isaias-en liburu ta Alkartasun Zaarreko beste millaka idatz-txataltxo, eberkeraz idatzita.

Bibliatik kanpoko idazki batzuek be aurkitu dabez; euron artean datoz "Lagunarte Arauak", "Argiaren semeen gudua Illunpeetako semeen aurka", "Gorapen-abestiak", "Salmu"-sorta barria, eta abar.

Idazki orreitatik dakigu judar lagunarte aren bizikerea: erlejiño-zaletasunari jarraiturik, txirotasuna, kastitatea ta menpetza gorderik bizi zirala: sadokarren jentil-kutsapenetik eta parastarren legeriatik iges egiteko, basamortura baztatu zirala, eta, Mesiasen egunetan, agindutako lurraldera biurtzeko asmoa ebela.

Beraz, Mesiasi buruz aurretiaz iragarritakoak beteteko aldia be eldu izan zala uste eben.

Judar erriaren artean zabal-zabal egoan Kunran-go espiritu-zalatasun orrek, istoriaren aldetik, Joan Bateatzaillearen eta Jesusen iragarreak izan eban arrera ona ulertzen laguntzen dauku.

\* \* \*

Ezagutu dagiguzan, ba, orain —eta leenengo aldiz euskeraz— "Kunran-go esku-idazkiak".

(*Jakintzat* artu bear diran berbak, kakote-arteetan dagoz.)

## KUNRAN-GO GORAPEN-ABESTIAK

Olerki oneik, geienetan, onetara asten dira: "Gorätzen zaitut, Jauna", edo "Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna".

Gorapen-abesti oneitan ia inoiz be ez da ezer eskatzen; egoera istorikoak eta idazlearen esperientzi sakonak bakarrik azaltzen dira.

Ez da erraz zenbat "Gorapen-abesti" diran jakitea. Ogei ta amairu dira emen jarri doguzanak. Judarren otoitzen negurrira dagoz idatzita, antza:

a) Jaungoikoari deia, idazpuru bereziaz.

b) Eskerrak zer dala-ta emoten diran esanik.

d) Gorapena ta amaiera.

Egilleak bat baiño geiago izan ziran, itxuraz, J. Starcky-k diñoanez, eta lau alditan dagoz idatzita. Bibliako Salmuen antz aundia dabe.

Gorapen-abesti oneitan ez da inoiz be erabilten "Yahvé" izenik, ezta "Elohim" be. Jaungoikoa, "Adonai" izenaz adierazoten da. Jauna; edo "Eli", "Elohim"-en aramera. Baiña ondo be ondo somatzen da Jaungoikoaren eragiña gizonen artean, eta Alkartasun Zaarreko teoloji-mailla berean dagoz.

### I Gorapen-abestia

#### I sorta

(Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna...]

5 Aal-izatearen iturri, burubidean aundi. Zure errukiak zenbatu-eziñak dira.

6 Zure ataza, ikaragarria da. Sumiñean geldia zara, epaitzean; zuzena zure egintza guztietan.

7 Zeure jakiturian oiñarritu zenduzan gizaldi betikoak.

Areik sortu baiño leen ezagutzen zenduzan

arein egintzak betiraunetik.

8 Izan be, dana egiten da zure baimenaren negurrira

eta ezin ezagutu daiteke ezer zure naia bagarik.

9 Edozein espiritu zeure eskuetatik urten zan. Zeuk ernerazo zenduan bizi-azia.

Bere bidea erakutsi zeutsan eta bidezidorra bere egintza guztietarako. Zeruak zeure aintzarako zabaldu zenduzan.

10 Izaki bakotxa zeure naitara sortu zenduan, espiritu aaltsuak euren arauen menpean.

11 Santutasun-mandataria izaten asi baiño leen —espiritu betikoak euren aginpidean—, zeure espirituaren negurrira argitu zenduzan.

12 Izarrak, izar bakotxak, euren bidezidorra dabe, eta aizeak euren oldar zakarrak;

13 tximistak zeruan zear arin be arin igaroten dira. Bakotxak bere bidea dau.

Zuk lurra oroigailu bat lez egin zenduan.

14 Itsasoa, lezak, areitan dagoana, zuk ezerezetik atara dozuz, zeure ugaritasuna erakusteko

15 Zu danetan zagoz.

Dana zeure naitara eregi zenduan.

16 Mundu osoa gizonaren zainpean jarri zenduan —betiraun-aldiak—, izaki guztiak bere menpean izan dagizan.

17 Euren toki berezietan banandu zenduzan, mugatu egin zeutsezan euren mugak, aldi doiterako. Baiña auziak bere eguna izentatuta dauko eta zeuk iragarriko dozu izate guztiaren gaiñean.

18 Lortutako bakeak irauan egingo dauala uste dabe areik;

baiña arein bakea amor-egiten dabenen bakea da.

19 Arein nagusitza banandua izango da, arein gizaldiak zearka galtzen diran zusterak lez. Zeatz emoten dozu eretxia.

20 Aurretiaz iragarri aal zan edozer, ezer jazo izan baiño leen,

zeure berban egoan.

Zu bagarik ezer be ez da egingo.

21 Guzti ori, emon zeustan agerpenari esker ulertu neban.

Nire entzumenak misterioetara

eta nire begiak arrigarrietara zabaldu zenduzan; baiña, ¿nor naz ni?

22 Auxe baiño ez: buztiñaz egindako izakia, uretan oretutakoa, ama-sabeletik urtendakoa —ama-sabela gorputzaldi-iturri—, gaiztakeriaren su-katilluan, pekatuaren moldean. Zeuk geitu zenduan nire senipartea zure biozperatasunaren negurrira.

23 ¿Zer esango dot zuk ezagutzen ez dozunik?, ¿zer entzunerazoko ete-neikezu leen zuri esan bagarik izan daitenik?

24 Dana izan zan markatua zure aurrean, dana izan zan zizelkatua betiraun-elburuetarako betikotzen dauan zizelaz. Aldi zeatzak adi-adi begirutzen dabezanen zerbitzurako, urteak zenbatzen dabenentzat, egun doi-doiak itxaroten dabenentzat.

25 Ezer be ezin egon daiteke zure begirunetik ezkutuan.

¿Zelan gordeko dau gizakiak bere burua bere pekatutik?

¿Zelan artu leike goragarritzat bere gaiztakeriaren alde egiterik?

26 ¿Zelan jokatu daike obendun azalduak azpitik ezin erosi daiteken auzi-ebazlearen aurka? Zeuk bakarrik dakizu, Jaungoiko orrek!, noiz arte egintzak zuzenak diran eta egia benetan dan.

27 Gizonen egintzak, ostera, akastunak dira, arau-ausleak, guzurrezkoak.

28 Miiñak diñoana, edozela be, zeuk egin zenduan espirituaz dago eraginda; orregaitik, berbak euron iturrian

ezagutzen dozuz

eta arein ezpanetako frutuaren jatortasuna ta balioa ondo miazten dozuz.

Zuk marra bat egiten dozu, igeltsero-berunaz lez, [gizonen] esanetarako.

29 Zure eskakizunai sor eta gor egiten yakena, zeure beso gogorraz menperatzen dozu.

Ez dozu zuk espirituak negurtzeko soka ta metro-bearrizanik, ezta arein egitamuak negurtzeko be.

30 Zeure aintza ezaguerazoteko eta zure misterio ezin-esan alakoak ditziratu daitezana.

Zure Izena guztien agoan goratu izan daiten.

31 Aldi guztietan zeu ezagutu ta goratu zagiezan.

32 Izan be, zu, zeure errukiz, zeure maitasunaren indarraz, gizonari aal-izatea emon zeustan, indarkeri-zalearen aurrean eta dongakeria gaiñeratzeko, aalegiñak egiten dauzanari aurka egiteko. Orregaitik, zure indarra obeto ditziratzen da zure izaki guztiakan eta zure aal-izatea agertzen dan egintza arrigarrietan.

33 Areik entzun egin izango dabe, jakiña ba.

Areik, jakitun diralako areik, odol-beroak, azpikeriak pillatzen dabezanak eta erria jopuratzen dabenak.

34 Izena “zuzenak” dabenak aspertu egingo dira erre-opariak eskintzen.

eta beartsuak buruz ez dira biotz-zabal agertuko.

Zuk ez egizuz makalak bertan-beera itzi. Biotz-gogorak ez dabe onetariko ezer be ulertu aal izango.

35 Entzun, jakitunok, ezaguerearen billa diarduzuenok,

itxaroten ez dakizuenok:

sendo irauteko aalegiñak egizuez, geitu egizue indarra.

36 Zuzenok: urrindu egizue zuekandik edozein zuzenbagekeri.

Zuek, bide bikaiña aukeratu dozuenok: babestu egizue beartsua!

37 Sumiñerako geldiak izan zaitez.

Ez baztatu Aren zuzentasuneko agindurik.

Aren egintzak zintzotasuna dira.

Dongak ez dabe ori iñoiz be ulertuko.

38 Asarrekorrak agin-karraska diardue [...].

## II Gorapen-abestia

### II sorta

1 ... ..

2 [Gaiztoak bertan-beera itzi eban] erospen-alkartasuna, [aldapa-beera gaiztakeriaren egintzetarantz larrapast egiñik].

3 Zuk zuzentasun eta egi-espirtua ezarri zenduan ezker,

4 bizardun guztiakan, jaso egiten dozu lokatza legor eta brintzatua zure abotsaren berbaz.

5 [Zeure zainpean dozuz...] bizi-toki guztietan dongearen aurrean euren espirtua dardaraka dabenak,

6 euren biotza koloka dabenak [...].

7 Miiñera bizkortasuna isurten dautsezu, ezpan erdainsubagez berba egiten dauanari erantzuteko.

Askatu egiten dozu griña txar-artetik gizon lotsabagak oiñazetutako arimea.

8 Bide zuzenean nire oiñai sendotasuna emon zeustan,

gaiztakeriari iñoiz be amor-egin ez dagiodan.

9 Lakioa lez egingo naz pekatarienzat eta, bide batez, indar osasungarri be bai pekatutik askatzea nai dabenentzat.

Maltzurra eretxiko dauste lauak; makalak, barriz, oso sendoa.

Begien aurre-aurrean jarriko naz,

10 saltzailleen aldetik iguingarri ta lotsagarri [izateko arriskuaz be].

Egiaren eta adimenaren ezkutua osotasunean ibilteko adorea dabenakan dago.

Dongen dongakeria [zigortzeko], ezpan oldartsuen —biraolarien— autorpena lez izango naz.

11 Biraolariak euren ezpanak karraska darabillez nire aurka.

Isekagarri nakie pekatariak.

12 Orroeka diardue nire aurka dongen batzarrekoak.

Itsas-aundiko ekatxa lez sumintzen dira.

13 Arein olatu legorak lupatza ta lokatzea txipristintzen dabez.

Baiña ikurrin zuzena lez ezarri nozu zuk aukeratu entzat, misterio miragarrien jakituriz beteriko adierazle egin nozu.

Agerbide nakie egiari jarraitu nai dautsoenai.

14 Neugan epaitzen dabez euren buruak zuzentasuna billatzen dabenak.

Okerkeriaren jarraitzailleak mugatzen dauzan gizona naz.

15 Beke-iturri [naz] egia ezagutzen daben guztientzat.

Ni entzutean, sumindu egiten dira amor-egitea atsegin dabenak.

16 Gizon maltzur guztiak azpi-jokatzen diardue, itsas-aundiak lez diardue orroeka nire aurka.

Arein bururapenak deabru-lakioak lez dira.

17 Illobian sartzen dabe gizonaren onoinena, aren agoan zuk irakaspina ezarri dozunarren be,

18 aren biotzean adimena ezarri zenduanarren be, onak diranentzat ezaguera-iturri bat zabaldu dagien.

Areik bertan-beera itzi dabe [iturri ori], ezpan zikiñak billatzen dabezala.

19 Ulertzen ez dauan erriaren berbete arrotzaz aseten dira.  
Beste batzuek jarraitzen dautsoen bidean galtzen dira.

### III Gorapen-abestia

20 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
bizitzan kutxatillan pitxia lez ezarri nenduzulako.  
21 Ni illobira jaurtiteko jarten eusteaz lakio guztien aurka  
zeure babesaz estaldu nenduzulako.  
Gizon oldartsuak nire biziaren aurka eraso egin eben.  
22 Baiña zeure Alkartasunak eusten eustan niri!  
Areik, guzurti basatiak alakoak!,  
Belial-en taldeak alakoak!,  
ez dakie ona ekarri nendua zeu izan zintzazanik,  
23 zure biozperatasunean zeuk atarako nozula onik.  
Izan be, zeu zara nire oinkadak zuzentzen dozuzana.  
24 Areik eraso egiten badauste,  
zeuk laketzen dozulako da.  
Goragarri agertzen zara zu / gaiztoak ondatzean,  
neure alde erakusten dozu zure aal-izatea  
25 gizonen semeen aurrean.  
Bai! Nire sendotasuana zeure errukitan datza.  
Nik auxe esan neban:  
Azarriak nire aurka euren taldeak eratuarren  
26 eta ni euren guda-tramankulu guztien bidez inguratuarren;  
euren dardaiak eta lantzen garra  
—zugatzak iruntsiten dauzan sua—  
etenbagarik jaurtiarren;  
euren deadarren zaratotsa  
27 ekaitz-erdian itsas-aundien dunbota lakoa,  
uriolea lakoa,  
gizatalde bat ondatzeko gai dan  
eramaitza ondatzaillea lakoa balitz bere,  
ezertxo be ez nintzake arduratuko.

28 Izarretaraiño jasoten dabez euren zentzunbagkeria ta arropuzkeria  
euren egintza ezin-txarragoak burutzeko asmoa artzen dabenean.

Ni, ostera, nire biotza ura lez jarten zan artean,  
nire arimea zeure Alkartasunean sendotzen zan.

29 Sarea zabaldu izan eusten:  
euren oiña izan daitela bertan jausi daitena!  
Lakioak jarri ebezan / niri oratzeko:  
euretan geratu daitezala arrapatuta!  
Nire oiñak zure bidezidorretan sendo iraun eban.  
30 Zeure izena bedeinkatuko dot,  
beronen batzalditik urrin be.

### IV Gorapen-abestia

31 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
zure begirakunea neugan jarri dozulako  
eta guzuraren adierazleen suminkeriaren aurka  
babestu nenduzulako,  
32 baita iruzurti-taldearen aurka be.  
Zeuk atara zenduan onik gaisoaren bizia,  
areik illerazoteko asmotan ziarduen gaisoa,  
33 arek zure zerbitzaritzan eskiñi eban odola isuririk;  
baiña ez ekien nire oinkadak zeuk zuzentzen zenduzanik.  
34 Areik, marrokeria billatzen dabene guztien  
agoz,  
destaiñera ta gerenera jaurtiko nabe.  
35 Zeuk, ene Jainko orrek!,  
zeuk lagundu zenduan gaisoa,  
36 indartsu egin zenduan makala aaltsuaren aurka.  
Zeuk askatu nenduzun aaltsuen aurka;  
37 arein irain-gai nintzala,  
ez zenduan laketu nik adorea galtzerik.  
38 Itxurazaleen maltzurkeria ez zan naikoa izan  
nik zure zerbitzaritza bertan-beera izteko.

Arein marrokeriak ez eben nire iraupena okertu,  
39 ezta arein arinkeriak be nire biotzeko jakituria.

### V Gorapen-abestia

#### III sorta

3 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nigan zeure aurpegia diztirazo dozulako.  
4 [...] Zeuri aintza betikoa [...] guztiakaz  
5 [...] zure agoa [...]  
eta zuk atara egin nenduzun [illibitik].  
6 Onik atara dozu nire arimea.  
Areik gorroto eusten  
eta itsas-sakonean datzan itsasontzia lez  
egin eben nire biziak;  
7 arresidun uria lez bere arerioen aurrean.  
Larritasunak artuta nengoan  
seiña leenengoz ekarri bear dauan emakumea lez,  
bat-batean sein-miñak eltzen yakozanean,  
8 eta aregan oiñaze gorriak somatzen diranean,  
laban zartaka dagoan zerbaiten antzera  
seingintzan diarduan emakumea  
biurketak egitera bearturik.  
Semeak eriotz-gogo bizira eltzen dira.  
9 Gizon baten seindun egoana,  
oiñazeak artuta egoan bere min biziakaitik;  
izan be, bere larritasunen erdian gizonaek bat eka-  
rren,  
eta Sheol-eko [Lezako] miñetatik,  
10 seindun egoanaren labatik,  
bere aal-izateagaitik onulari miragarri zan bat  
etorren argitara,  
eta gizonaek bat urtetan zan onik larritasunetatik.  
11 Seindunaren gaiñera  
bultzakada ta oiñaze bizi guztiak amiltzen dira or-  
duan.  
Semeak jaioten ziran unean,  
ikara-larriak beteten ebezan seindun egozanak.

Seiña ekarren unean,  
samintasun guztiak batera eltzen ziran  
12 seindun egoan sabelera.  
Eta suge bat itxaroten ebana,  
min gogorretan sartuta egoan,  
eta lezako erasoak zemai ikaragarri lertzen ziran.  
13 Arresiaren ondopeak koloka egozan,  
itsas-gaiñean itsasontzia lez;  
odeiak, zaratots ikaragarri, danbadaka ziarduen,  
eta autsetan etzazan guztiak  
14 itsasoetan zear igaroten diranak lez egozan;  
15 izan be, aren jakituria guztia  
euren eragiñak eta lezako orroek  
eta olatuen jagiteak eta itsas-gorabecerak  
14 ezereztu egin izan eben.  
16 Itsasoko olatuak ikara-larri egiten eben du-  
rundi;  
Sheol-a [Lezea] ta Abaddon zabaldu egiten zirala  
zirudian.  
Illobiko gezi guztiak  
17 egiten eutsuen lagun  
eta euren txistuak entzunerazoten ebezan.  
Sheol-eko ateak zabaldu egiten ziran  
sugearen azpikerien eragiñez.  
18 Illobiko ateak gaiztakeri-seingintzan ziardua-  
naren ostean  
itxi egiten ziran,  
eta ate-orri betikoak sugearen espirituen ostean.

### VI Gorapen-abestia

19 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
illibitik onik atara nenduzulako.  
20 Eta Abaddon-en sakonetatik goi betikora salto  
eragin eusten.  
Ni bidezidor zuzenetik noa [...] amaitu-eziña [...].  
Nik badakit itxaropena geratzen dana  
21 buztiñetik eratu zenduan arentzat,  
batzaldi betikora eltzeko.

Zeuk garbitu zenduan pekatu moltzoaren espiritu zitala.

22 Zeruko semeen batzaldiko alkartasuncan sarrazo zenduan.

Gizonari betiraun-zoria ezarri zeutsan,

23 jakintza-espirtuaz,  
arekaz batera zeure izena goratzeko,  
zure egintzak begiratzean zeure arrigarriak azaltzeko.

24 Ni, buztin-ontzi au, ¿nor naz?

Uretan oraatuta banago,

¿zein da nire adorea?, ¿zein nire indarra?

Ni, dongakeriaren erreñuan bizi nintzan au,

25 galduen zoria eroateko izentatuta nengoan au,  
doillor-espirtu au,  
atsekabe ta zoritxar aundi artean ez-ezagun niñoi au!

Tentaldiak bakarrik urtetan yatazan bidera.

26 Obi itzalak zabalduko dira —arrakalak lakioak lez—,  
dongakeri-amuak izango dira atonduak,  
galduen sareek zabalgune galantak artuko dabez uren gainean.

27 Lezako dardai guztiak egaz urtengo dira.

Ez dabe euren jo-mugan utsik egingo.

Ilgarriro zaurituko dabe, itxaropenik itzi bagarik.

28 Epaiaren sokea galduen gainera jausiko da,  
sumiñaren ondorenean bertan-beera itzitakoen gainera;

amorruren isurtea, babes-bagarikoen gainera.

29 Belial diran guztientzat sumiñaldia eldu daite-  
nean [jazoko da];

eriotz-oiñestunak itxi daitezanean,

ezetara be iges egin eziniñik;

Belial-en ur-boladek urpideak urgoriaz aldatu dagie-  
zanean.

Suak iruntsi egingo dauz ur areitatik edan dagien  
guztiak.

Arein aldamenean egon daitezcan zugatz guztiak  
ondatu egingo dauz,

eze ta adartsu egonarren be.

30 Suak erre egingo dauz lurreko sakonak.

Aren zabalgunea, ikusi-ala urrin, eremua izango da.

31 Mendien azpiak galdatu egingo dira, arkatxen  
zustarrak pikea lez zirinduko dira.

Su iruntzailleak itsas-aundiraiño doa.

32 Belial-en ur-boladak Abaddon-egana amiltzen  
dira,

au bete-bete egiteraiño.

Itsasoko sakonak orroeka diardue;

aren olatuak galantak dira,

egundokoak, baiña odollezkoak.

33 Garrasika dago lurra munduaren gainera dato-  
rren ondamediagaitik.

“Garaipena!”, diño deadarka azpikariak.

Lurreko bizilagun guztiak burutik eginda dagoz,

34 alboraka dabiz ondapenaren erdian.

35 Jaungoikoak bere abots aaltsua joerazoten dau.

Aren bizitoki santua gorabeeratu egiten da

Aren aintzaren tximist-isil dirdiratsuz.

Zeruetako gudarozteak bere abotsa jasoten dau.

Munduaren ondopeak dardaraka ta koloka dagoz.

36 Zeruko indartsuen guduak

mundua zigorkadaz astintzen dau,

eta betirauneko ondapena bete arte

ez da zigorra geldituko.

Alantxe izango da amaia.

## VII Garaipen-abestia

37 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,

babes sendoa emon zeustalako

38 nire ondatzailleen aurka eta [...]

astinduko dabezan zoritxarretatik babestu egingo  
nozu [...]

39 iñor be ez da sartuko [...].

## IV sorta

... ..

3 [...] Zeuk jarri zenduzan nire oiñak arkatxean

4 bidezidor betikorantz ibilteko.

Nire bidezidorrak zeuk aukeratu zenduzan!

## VIII Gorapen-abestia

### IV sorta

5 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,

nire aurpegia argiz bete dozulako.

Zure Alkartasuna, egunsentia lakoa da.

6 Nik zintzoro billatzen zaitut;

zure goizaldean diz-diz egiten dozu nire aurrean.

7 Baiña, oil, zure erriko beste batzui

guzur-zabaltzailleak iruzur egiten dautsee euren az-  
pikeriaz.

Errakuntza-adierazleak galerazo egiten dautsoe sus-  
moa.

Areik —lillurata— euren ondapenera doaz arin.

8 Arein egintzak zorakeriak baiño ez dira.

Ni, ostera, utsean nauke, ez nabe ontzat artzen,

zure aal-izatea nigan argi-argi agertzen danarren be.

9 Txoria beronen apiatik lez bota nenduen nire lu-  
rraldetik.

Nire adiskide ta senide guztiak urrindu egin ziran ni-  
gandik,

zabor-iturri lez erabili nenduen.

10 Guzurrezko ikusleak, ostera,

guzurrezko jakitearen jabeak, Belial-en kimuak,

irakaspena aldatzea nai izan eben,

11 Zuk nire biotzean zizelkatu zenduan irakaspe-  
na.

Erriaren artean maltzur-berbak banandurik,

egarritsuen eskuan egoan jakintza-edaria kendu egin  
eben.

Patar motelgarriaz moskortu ebezan,

arein moskorraz baliatzeko,

zorabiotan jausi zeiteezan;

12 areik euren jaietan euren sareetan arrapatzeko  
asmotan zarduen.

Baiña zure, Jaungoiko orrek, barre-santzoka,

barre egiten dozu Belial-en asmoen lepotik.

Zure naia bete egiten da edozela be;

zure asmoa betiko izan zan ezarria;

Belial-en egitarauak, ostera, galdu-egitarauak dira.

13 Areik antze-emoilleak bakarrik dira.

Zu billatzen zaituenean,

euren irabaziagaitik da, zure egiagaitik ez.

Arein asmoak azentzio ta edenezko zuzarretik  
sortzen dira.

14 Euren biotz gogorak narras eroanda, bururik  
ez dabela doaz.

Euren sasi-jainkoeen erdian zeu aurkitzea uste dabe.

Ain zuzen be, zuzendaritzat  
eurak ondamedira eroaten diarduana artzen irauten  
dabe.

15 Guzurrezko profeten berbak zuzendurik gura  
zaitue aurkitu;

profeta orreik, izkera artotzez, ezpan motelez,

ameskeriak esan baiño ez dabe besterik egiten.

16 Zure erriari berba egiten dautsoe;

euren maltzurkeriaz zure egitsariai balioa kentzea  
gura dabe.

Ez leukee zure abotsik entzun nai,

eza zure itzari jaramonik egin be.

17 Agiri-agirian dagoan aurrean, “Ez da orrela!”,  
esan eben.

¿Zein erantzun emongo dautsezu, ene Jaungoiko  
orrek?

18 Zigortu egingo dozuz zure aal-izateaz,  
arein dongakeriak eta sasi-jainkokeriak euren ordai-  
ña artuko dabe,

euren lakioetan beretan jausiko dira.

Zure Alkartasunaren zin-ausleak alakoak!

19 Zeure epiaiaz ezerezetuko dozuz iruzurtiak.

Arrezkero ezin aurkitu izango da sasi-ikuslerik.

20 Zure erabagi sendoan ez dago ez bairik, ez erostarik.

Zeure aurrean iraungo dabe betiko zure maitasunaren gai diranak.

Zure biotzaren bidezidorretan dabizanak

21 Inoiz be ez dabe urritasunik eroango. Nire eusgarri zeu bakarrik zarean ezker, ni zapaltzen aalegintzen diranai gogor egiteko jagiko naz.

Niri irri egiten dausten aurka jagiko da nire eskua.

22 Zure aal-izatea neugan agertzen zenduanik onartu nai ez ebelako.

Jakiña, ba!, indartsu agertuko dozu nigan zure argi bikaiña.

23 [...].

24 Nire deiari jarraiturik, zeure Alkartasunean sartu ziranen aurpegiak ez dira lotsatuta geratuko.

Nire esaneko diranak

zeure biotzeko bidean doaz aurrera,

24 euren lekua santuen batzaldian artzen dabe. Arein elburuari azken-garaipena emongo dautsazu.

Kutsatu eziñezko argitasunaz agerrera dozu egia.

Ez dozu laketuko / galduek arei bidea galduazoten.

26 Ori azpikeriaz jokatu dagienean, zure errian arein ustebetetasuna sarrerazoko dozu. Auzirako ondapen-tresna lez erabiliko dozuz,

27 zure berba-ausleak ondatzeko.

Nire bidez argitu egin dozu askoren aurpegia eta zenbatu-eziñak izateraiño geitu zenduzan.

Niri zeure ezkutu miragarriak ezaguerazo daustazuz.

28 Zure asmo arrigarrian, nigan zeure aal-izatea agertu zenduan.

Miragarriak egin zenduzan askoren aurrean, zeure gorapenerako

29 eta bizidun guztiak zeure egitsariak ezagutu dagiezan.

¿Zein gizaki da gauza orretarako?

¿Zein buztin-izakik izango dau zure arrigarriak egiteko aal-izaterik?

Bestetara bai: gizakia gaiztakeritan datza

30 ama-sabelean ezker, eta arek zaartzarorarte maltzurkeri-errudun izaten iraungo dau.

Badakit nik zuzentasuna gizonari ez dagokiona.

Bidezidorreko bikaintasuna ez da Adan-en semeena eurena.

31 Jaungoiko gorengoarenak dira zuzentasun-egintza guztiak.

Gizonaren bidea / Jaungoikoak aregan eratu dauan espirituaren indarrez bakarrik da iraunkor,

32 Adan-en semeen bidezidorra bikain egiteko, aren jokabide zuzenaz,

Jainkoaren egintza indartsua ezagutu dagien, baita Aren gogoko diran seme guztiakanako erruki ugaria be [ezagutu dagien].

33 Bildurrak eta esturak artu nenduen, zatitu egin ziran nire azur guztiak, nire biotza argizaria su-aurrean lez urtzen zan.

34 Nire belaunak laban egiten eben —aldapa-beera txirristaka doan urak lez— neure erruak eta neure gurasoen maltzurkeria gogoratzean.

Dongak zeure Alkartasunaren aurka eta gaiztoak zeure itzaren aurka jagi izan ziran aldi-an,

35 nik auxe esan neban:

Neure agindu-austeagaitik izan naz bertan-beera itzia

eta zure itunpenetik jaurtia.

Baiña zure eskuaren indarra eta, aldi berean,

36 zure erruki ugariak gogora ekarri nebazanean, adorea ta indarra artu nebazan barriro, eta, jagirik, nire espiritua indartsua egin zan, atsekabeari gogor egiteko.

37 Zeure ontasunai ta maitasunari azkenbageai oratu neutsen.

38 Gizonak gelditu bagarik diardu zuk egin dozuna [begiratzen],

dongea ta zintzoa zeuk egin dozuz-ta.

39 Zeure itunpenaz sendotu nenduzun [...],

40 zeure aurrean [iraungo dot], egia zeu zara-ta; zure egintza guztiak, barriz, zuzenak dira.

#### V sorta

1 Zure parkamena ugaria da, zure errukia oso aberatsa.

2 ... ..

3 [...] au ezagutu nebanean [...]

4 zeure naitan eta [zeu billatzen zaituen] guzti arein zentzunean.

#### IX Gorapen-abestia

5 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna, erbestaldian erri arrotzaren artean nengoala bertan-beera itzi ez nenduzulako;

nire erruen negurrira epaitu ez nozulako, 6 nire biotzeko asmo gaiztoen eskuetan be bertan-beera itzi ez nenduzulako.

Illobitik atarata jaso zenduan nire bizia.

7 Erru-semeai izentatuta egozan leioen erdian itzi izan nenduzun bertan-beera, aaltsuen azurrak zatitu eta indartsuen odola edaten daben leioen erdian.

Erbestaldian bertan-beera itzi nenduzun,

8 itsas-gaiñean sareak zabaltzen dabezan arrantzale-taldearen artean.

Gaiztakeriaren semeak billatzen dabezan eiztarieñ artean.

Estura ikaragarri aretan, zeure jakintzaz beraz izan nintzan irakatsia.

9 Nire biotzean egiaren ezkutua sendotu zenduan. Auxe da itunpena billatzen daben itunpen-iturria.

Zeuk itzi zenduan leoikumeen agoa;

10 arein agiñak ezpatea lez dira,

arein betagiñak lantza zorrotza lez.

Arein egitamu guztiak suge-edena dira, arein asmo guztiak odola miazkatzera jotzen dabe. Orregaitik, zelatan diardue.

11 Baiña ezin jaurti izan dabez nire aurka euren aginkadak,

zuk, ene Jainko orrek, gizonen begietatik gorde egin izan nenduzun-eta, zure legea izentatutako aldirarte zaintzeko.

12 Orduan zeure salbamena agertu zeustan.

Ez nenduzun estutasunean bertan-beera itzi.

Entzun egin zenduan nire laguntza-deadarra.

13 Antzika nengoala, entzun egin zenduan nire bear-izanaren berbotsa.

Atara egin zenduan beartsuaren arimea leioen kobako larrialdian, euren agiñak ezpatea lez zorrotzen dabezan leoiakandik.

14 Baiña zuk, ene Jainko orrek, arein agiñak lotu egin zenduzan, apalaren eta beartsuaren arimea urratu aal ez egien. Zorroan sartu zenduan arein miiña,

15 ezpatea beronen zorroan lez, zure morroietariko bat bera be zauritu aal ez egien. Zeure aal-izatea erakutsi zenduan Adan-en semeen aurrean;

16 miragarriak egin zenduzan beartsuarentzat. Su-katillura isuri zenduan, sutan garbitzeko, ertilarriak putz egiten dautsoen laban zidarra bikaintzen dan antzera zazpi aldiz garbiturik.

17 Erriko dongak artegatu egiten ziran nire aurka oiñazcak deadarka iragarten;



Nire arimea egun guztian atsekabetuta egoan.

18 Baiña zuk, ene Jainko orrek,  
aize baltza aizekirri arin biurtu zenduan.

19 Artzaiñak arrapakiña leoi en agotik ataraten  
dauanez,  
alantxe askatu dozu beartsuaren arimea.

### X Gorapen-abestia

20 Bedeinkatua zeu, Jauna,  
umezurtza bertan-beera itzi ez zendualako,

21 beartsua be baztarrean itzi ez zendualako;  
izan be, zure aal-izatea agortu-eziña da

22 eta zure aintza, mugabagea.  
Gudalari miragarriak dira zure morroiak  
eta apalen erria zeure oiñazpia lez da.  
Arekandik datorren gorapena atsegigarri yatzu.

23 Areik zuzentasun-ardurea dabe,  
beartsu guztiak gora jasoten aalegintzen dira,  
zuk maite dozuzan beartsuak,  
zapalkundetik askatzeko.

Orregaitik, ni guztien arerio biurtu naz,

24 nire lagun-urkoaren erantzugarri ta eztabai-  
dagari,

Itunpenean eskuartzen daben guztientzat  
arduragarri ta sumingarri;  
nire senitarte guztientzat  
eta nire ogia jaten daben guztientzat  
mormoxetagarri ta esamesgarri.

25 Neure aurka jaso dabe orpo-azurra.  
Ezpan gaiztoz egiten dabe berba nitzaz  
Alkartasunekoak ziran guzti areik.

Leen jarraitzen eusten gizonak eurak / biurritu egin  
dira.

26 Nire inguruan mormoxetan diardue,  
zuk nigan gorde dozun misterioagaitik.  
Baltzitu egin dauste izen ona ondapen-sembleen artean,  
zu nigan aundi agertzeko erea emonik.

27 Arein erruagaitik, ezkutatu egin zeutsezan  
adimenaren iturria ta egiaren ezkutua.

Areik ondapena baiño ez erabillen euren biotzean,  
Belial-en asmoak ausnartzen ebezan.

28 Miin guzurti bat askatu eben,  
arantzen artean loratzen diran  
suge-edena bustiteko.  
Autsetan sua jaurtiten daben narrastiak lakoak dira,  
suge txikiak lakoak;

29 onein aurka ez dabe sorginkeriak ezetarako  
balio.

Ori [nire] barruan min osatu-ezin biurtu zan,  
zauri galgarria zure morroiaren erraietan,  
bere espirituan ia koloka eragiteraiño

30 eta indar guztiak kentzeraiño.

Zutik be ezin egon neintekean.

Zauritu egin nenduen kale-zirkilluetan;  
nire aurka etozanean, ezin aurkitu neikean an babe-  
sik;  
ez egoan an igestokirik.

31 Nire atsekabeak zirala-ta,  
arpa-otsean abestiak egin ebezan.

Ari-ereskiñez esan ebezan euren esamesak;  
zarata ta poz-arte  
atsegiña artzen eben nire atsekabe ta esturakaitik.

32 Seingintzan diarduan emakumea lez,  
nire biotzak antzi egiten eban nire barruan.  
Illeta-soiñekoak jantzi nebazan.

Nire miiña ago-sabaiari itsasi yakon,  
nire azurrak ausi egin ziran,  
nire biotza auldu egin zan.

33 Samintasunez beterik banatu zan.  
Nire dirdira illunpe biurtu zan.

Baiña zuk, ene Jainko orrek,

34 nire biotza negurri bagarik nasaitu zenduan,  
areik nire miña azken bagarik geitzea uste eben arte-  
an  
eta ni illunpe astunetan sartzen aalegintzen ziran  
artearen.

Nik nire ogia antzi-artearen jaten neban,

35 malko azkenbageak ziran nire edaria.

Nire begiak tristuraz estaldu egin ziran;  
nire arimea, samíñez egun oro,

36 miñak inguratu egin nau,  
lotseak estaldu egiten dau nire aurpegia.

Nire ogia estualdi  
eta nire edaria nire azurretaraiño sartzen dan eztabai-  
da biurtu zan,

37 nire espirituari koloka eragiteko ta nire kemena  
ezerezteko.

Euren pekatuzko ezkutuari jarraiturik,  
bardindu egiten dabez euren erruak Jaungoikoaren  
egintzakaz.

38 Ezin ausi daitekezan zokaz lotu nenduen,  
ezin zartatu daitekezan katez;  
burdiñazko lokarriz eta brontzezko atez  
babestutako arresi baten barruan sartuta.

39 Nire espetxea leza azkenbagearen antzekoa da.

40 Belial-en lokarriak lotu egiten dabe nire arimea  
urtenik ez dauan galmendiaz.

### VI sorta

1-2 ... ..

3 destaiñean ondatutako biotza,  
azkeneraiño jaurtitako biurrikeriaren eskuetan,  
triskantza errukibagean.

4a Baiña zuk, ene Jainko orrek,  
zabaldtu egin zenduan nire entzumena,  
zuzentasuna irakasten dabenaren arauz jokatu dagi-  
dan.

### XI Gorapen-abestia

4b Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nire arimea arropuzkeri-batzalditik  
eta indarkeriaren bazkuntetik atara zendualako.  
Zeure batzarrean sartu nenduzan eta ez errudun iza-

tean.

6 Euren biurrikerietatik biuritzen diranentzat  
eta pekatua bertan-beera izten dabenentzat  
itxaropena egoala jakin neban,

7 dongakeria bagarik zeure biotzeko bidezidorre-  
tan dabizanentzat.

Adoretu egingo naz erriaren mormoxetaz eta aaltsu-  
en zarraparraz  
neure aurka alkartu daitezanean;

8 izan be, ondo dakit jaso egingo dozuzana  
bizirik geratutako zure errikoak,  
baita zure oiñordetzako ondakiñak be;  
garbitu egingo dozuz, erru bagarik bizi daitezcan.

9 Zure egiaren eta biotz onaren egintzak  
arekanako zeure jokabidea argituko dabe.  
Eruki neurribageaz eta parkamen ugariaz  
zeure itzaren ezaguerara erango dozuz.

10 Zure egiaren zuzenbidearen eraz,  
zeure aintzaren batzarrean jarriko dozuz.  
Zeure maitasunagaitik egin dozu guzti au,  
11 zeure maitasuna goratzeko ta zabaltzeko  
zure batzarreko gizon guztien artean,

Adan-en semeen erdian;  
gizaldi betikoai zeure miragarriak azaltzeko,  
zeure egintza amaibageak ausnartzen dodaz.

12 Atzerri guztiak ezagutuko dabe zure egia,  
erri guztiak zure aintza:  
zure ezaguerea ta ditzira

13 gizon guztien erdira isuri dozuzalako.  
Ez da izango bitartekorik geiago zure batzarreko  
gizonen artean.

Aingeruakaz batera egongo dira zure aurrean.

14 [...] [Asko] onbideratuko dira zure berba gora-  
garriagaitik.

Zeure printzeak izango dira aukeratuen taldean.

15 [...] Emamin betiko bat. Ortze aziko da "ki-  
mua"

landaratza betikoaren baruzarentzat  
eta bere gerizea [lur] guztiaren gaiñera zabalduko

dau.

16 Aren zustrak lezako sakonetaraiño zabalduko dira,

Eden-go ibaietaraiño [...];  
aren frutuak [uzta] ugaria izango dira [...].

17 [...] Mundu guztian zear zabalduko da muga bagarik Sheol-eraiño [...].

Argi-iturria iturburu betiko ta amaibagea biurtuko da.

18 Aren garretan [gaiztakeri guztiak] ezereztuko dira.

Gizon guztiak ondatu arte  
iruntsiten dauzan sua lez izango dira.

19 Nire Alkartasunari lotuta gero  
lillurakeritan galdu daitezanak  
ez dira zuzentasunean kontutan artuak izango.

20 Zuk, ene Jainko orrek,  
irabaziak arein bidezidorretik kanpo lortzeko agindu zeutsen,  
erdainbagea ta dongea ta [gizon] zakarra ibiltzen ez diran tokian.

21 Okertu egin ziran zure biotzeko bidetik,  
ondamendiak artuta [jausi ziran].

22 Belial-en onulari lez dago arein biotza [...]  
dongakeri [bazkunean], erruan batuta.  
Ni, barriz, itsaso suminduari [bertan-beera itzitako] ontzian.

23 Aren olatuak eta itsas-gorabeerak neure aurka jotzen eban;  
ondapen-aizeak [astintzen nenduen],  
artegatuta [nenbillen] noraezean.

Ez zan ni nasaitzeko aizekiririk,

24 ezta itsas-gaiñean  
nire bideari jarraitzeko bidezidorrik be.  
Lezeak nire larriaren oiartzuna barrizten eban.  
Eriotzako ateetaraiño eldu nintzan.

25 Arresidun urian sartu  
eta, askatasuna jadetsi arte [...]  
esi garai baten barruan gordeten dana lez izan nin-

tzan.

Zeure egiari bakarrik [orutzen dautsat], ene Jainkoa;

26 izan be, arkaitz-gaiñean ondopea  
eta egitamua sendo, plomatuta,  
zuzentasuna lez eta osoro dendunetan ezarten dauana zeu zara.

Arri aukeratuak ezarri zenduzan etxekuntza oso sendorako:

27 ez dautse dardakadai bildurrik  
eta aregan babesten diranai ziurtasuna emoten dautse.

Ez da areriorik aregan sartu aal izango.  
Aren atek aterdi oso gogorak daukez:

28 zabaldu-eziñak izango dira,  
ezin ausi izango diran katez lotuta.  
Ezin sartu aal izango dira an ondatzaille-aldrak,  
euren guda-iskillo aaltsuak ekarriaren be.

29 Bestetara bai: dongak gudurako darabillezan  
ezpata guztiak ondatuak izango dira.  
Aldi orretan Jaungoikoaren ezpateak  
aurreratu egingo dau auzirako aukeratutako egu-- na,  
eta Aren seme guztiak  
dongakeria garbitzeko jagiko dira.

30 Erru-seme guztiak ezereztu egingo dira.  
Ez dira aurrerantzean izango [...]  
Gizon arrigarriak bere gezi-uztaiari eragingo dautso  
eta eten egingo dau inguratzea;

31 onek ez dau betiko iraungo [...].  
Ate betikoetatik guda-iskilloak urten  
eta lureko ertz batetik bestera joango dira [...].

32 [Ondapena] ezaguera errudunarentzat.  
Zapaldu egingo dabe [...]  
triskantzaraiño. Ez da aren ondakiñik geratuko.

Ez dago itxaropenik aren talde ugariarentzat,  
33 ezta gordelekurik be aren guda-mutillentzat,  
[garaipena] Alkartasuneko Jaungoikoarena da-ta.

34 Autsetan datzazanak zut-oiala jasoko dabe,  
eta arrak jandako (gizon) ilkorrak jagi egingo dira.

Biurriak triskatuak izango dira gudaketetan,  
35 eta zigor ondatzaillea zarterazoten ebenak  
ez dira gazteluan sartuko.

36 Eziña [izango yake] ormatzarretik igarotea,  
baita soin-burdiñea auste be.

## XII Gorapen-abestia

### VII sorta

1 Bildotsa lez isildu nintzan ni.

2 Nire besoa atarata geratu zan nire soin-enborretik

eta onen lotzaiketatik;  
nire oiña zingiran sartuta egoan,  
eta nire begiak / gaiztakeria ez ikusteko estalduta;

3 nire belarriak, gizailterik ez entzuteko itxita;  
nire biotza arrituta, Belial-gandik etorren asmo gaiztoaren aurrean.

4 Aren izakerea agertzen zanean,  
etxeko ondopeak astindu  
eta nire azurrak banandu egiten ziran.  
Nire erraiak / itsasontzia ekatxaren erdian lez ikaritzen ziran.

5 Nire biotzak dardar egiten eban ondapenaren aurrean;  
galdutzat jotzen neban nire burua,  
guztia yatan naaste-eragille,  
eta aren pekatua ondapen-bide.

## XIII Gorapen-abestia

6 Eskerrak emoten dautsuadaz, Jauna,  
zeure indarraz eutsi daustazulako,  
7 eta, koloka egin ez dagidan,  
zeure espiritu santua isuri dozu nigan.  
Sendotu egin nozu dongakeri-epailleen aurrean.

8 Arein azpikeriak gora-beera, ez dozu laketu nik

adorea galtzen,  
ezta zure Alkartasunari uko egiten be.  
Bestetara baiño: nitzaz torre sendoa egin dozu,  
ormatzar garaia.

9 Nire etxea arkatxean jarri dozu  
eta nire aziak ondope betikoen gaiñean.  
Nire ormatzar guztiak ezek ezin astindu aal izango dauzan

zutabe gogorrez izan dira sendotuak.

10 Zuk, ene Jainko orrek, orbela lez jarri dozuz  
santutasun-batzarren aurrean.  
Iraunkor egin dozu nire biotza zure itunpenean,  
eta nire miñña zure irakatsietan.

11 Ez dago barbarik espiritu ondatzaillearen agoran.  
Zure miññari ez yako erantzunik bururatzten.

12 Erru-semeentzat, mututasuna.  
Ezpan guzurrezkoak dira.  
Auzian nire erasotaille guztiak galduko dozuz.  
Zintzoaren eta gaiztoaren arteko

amildegi-munarria izango naz ni.  
13 Izan be, ezagutzen dozu zuk egitada bakotxeko moldea,  
banantzen dozu zuk erantzun bakotxeko egiatasuna.  
Nire biotza zeugaitik dago nasai;

14 zeure egiaren indarraz sendotzen dozuz nire oinkadak  
zuzentasunaren bidezidor gatxetan,  
biziaren lurralderaiño zeure aurrean ibili naiten,  
aintzaren zidorretatik,

15 iñoiz be txikiagotzen ez dan garaipenaren zidorretatik.

16 Ezagutzen dozu zuk zure morroiaren izakerea,  
[zeuri orutzen dautsut] [...]

17 [...] gordelekua zeure indarrean billatzeko,  
gizonagan niretzat euskarririk ez dago-ta;

18 ez dago [zapaltzailleagandik] askatzeko itxaropenik.

Atzeraka egitea [...].

Nik zeure egiazi oratzen dausat.

Zeure samurtasun ugarian dot ustea.

19 Zeuk eragiten dautsazu aurrera bizia

eta azierazoten dozu kimu barria.

Zeugandik ataraten dabe euren indarra [maastiko] aien-begiak.

Zeugan jarri daike ustea edonok.

20 Zeure itunpenari oratzen dausat,

Zeuk diñozunari itsasten nakio.

Biotz-bigun diranen semeentzako aita izentatu nozu;

21 berba egiteko gauza diranen irakasari.

Bularrekoak amaren bularretaruntz lez makurtu

eben euren agoa,

azten dabezanen altzoan ume batek lez.

22 Geitu egin zenduan nire indarra ni zemaizen nenduenen aurka.

Banandu egin zenduan nire aurka alkar bat egiten ebenen taldea.

23 Nire aurkako guzurkideak lastoa aizearen aurka lez ziran.

Nire indarrak burdiñazko estunak lez estutzen eben gaizkilleen [iztarria].

Zeuk, ene Jainko orrek, emon zeustan indar ori, zeuk sendotu zenduan nire espiritua.

24 Bai, zu niretzat betiraun-argia zara,

zeuk egin zenduan paradisuari dizdiz egiten dauan argia.

26 Oraindiño be, bearbada [...].

#### XIV Gorapen-abestia

Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna, egiarako irakasle izan zintzakidazalako.

27 Zeure misterio miragarriak ezaguerazo zeustazan,

gizon makalarentzat dozun ontasuna, oraindiño biotz gaiztoa dabeneztat dozun erruki pilloa.

28 ¿Nor da jainkoren artean zeu lakorik, Jauna?;

¿Nor da zeu lako egizalerik?

¿Nor urtengo da zuzendun zure aurrean, auzian?

29 Ez dago zure auzitaldiari erantzun aal dagion

bat bera be;

aintza bakotxa putz bat da,

ezin daikoe iñok zure sumiñari gogorrik egin.

30 Egiaren seme guztiak onartuko dauz zure aurrean zure parkamenak,

zure ontasun andiak euren pekatuetatik garbitutakoak,

zure erruki azkenbageak,

31 (seme areik) gizaldien gizaldietan zeure aurrean egonerazoteko.

Zeure etxean, Jainko betikoa!

zidor zabalduak dagozan tokian,

32 iñor be ez dabil zugandik kanpo betiko.

¿Nor da gizona, makala, putz ariña,

33 zure egintza miragarriak ulertzeko,

[gizona] zeuk irakasten ez badozu?

#### XV Gorapen-abestia

34 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,

nire zoria uts-aldera jausten laketu ez zendualako.

Nire izena ez dago azalutsen bazkunean idatzita.

35 Bestetara baiño: zure bideetan aalegiñaz burrukan egitea

billatzen dabenen artean (dago),

zure parkamenetan, zure erruki ugarietan

eta euren erabagien zuzentasuna zuzentzeko sendotzen diran artean

36 [...] salduta [...] damubageak.

#### VIII sorta

1 ... ..

2 [...] zure zuzentasuna betiko ezarri zenduan ...

#### XVI Gorapen-abestia

4 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna, lur legorretik erreka darien tokietara eroan nenduzulako,

agortzen ez diran iturri-tokietara, garastada-urtegi ertzerara.

5 Lorategia jarri zenduan basamortuan:

gauarbolak, zumarrak, enbor gogorrak. Zeure diztira.

6 Iturburu ezkututsu baten ondoan

bizi-zugatzak jagiten dira ur-landaren artean.

Arein artean erneko da, ernamiña lez, landarategi betikoa.

7 Arein zustarrak ezetasunezko joera sakoneta-runtz,

arein bidez edango dabe enborrak ur-bizia,

8 ur-bizi betikoen parteartzaille izango dira.

Iturri-ondoan, zarta-artean,

larratuko dira basoko abere guztiak.

Enborren artetik bide barriak eta zidorrak edegiko dira.

9 Aren adarrak txori guztientzat balio izango dabe.

Ur-ietatik asiko dira egaztadan egaztiak,

arein orritza-artetik jagiko dira.

10 ¿Nor izango da ur-biziai bere zustarrak luzatuko dautsezan ori?

¿Nok erneazoko dauz santutasun-ernamiña

eta egiazko alorrak?

11 Arrezkero aretzaz iñok ez pentsatzeraiño geratuko da ezkutuan.

Aren misterioa ez dau iñok ezagutuko,

sillututa geratuko da.

Baiña zuk, Jainko orrek!, babestu egin zenduan aren gerokoa

zure gizon arrigarrien misterioan,

12 bikaintasun-misterioen artean

eta sugarren zurrunbilloan.

Bitartean, iñor be ez da urreratuko bizi-iturburura,

santutasuna darion iturrira,

landarategi betikoetara.

13 Ez da edango, ez fruturik sortuko; ukatu egingo yake odeien ugaritasuna:

14 bizi-iturria, erreka agortu-eziña, ikusia bai, baiña onartua izan ez dalako, aztertua bai, baiña sinistua izan ez dalako.

15 Ibai ondartzailleak urratutako lurra lez geratu nintzan, lopatzaz bete nenduen.

16 Baiña zuk, ene Jainko orrek, nigan barriro berbak jarri dozuz, udazken-euria lez,

egarri diran guztientzat eta iñoz be isilduko ez diran ur-bizien iturri lez.

17 Zabaldu egingo dira zeruak amaibagako euriz; legortu ta agortuta dagozan larren gaiñera edozein izaki bizirentzat urak ugari jausiko dira.

18 [Zugatzak] gerizpea emongo dautsee txoriai ta abereai.

19 Zuzenbageak, beruna lez, ur oldartsuetako sakonera joango dira.

20 Suaren arrapakin izango dira, kiskalduak.

Baiña landarategi alekorra

iturri betikoan aziko da

atsegin-tokia izateko.

21 Neugaitik edegi zenduzan aren iturburuak eta arein ur-gaiñeari negurri iraunkorra emon zeustan.

Utsunetan eta eguzkitan jarritako arein zugatzentzat,

22 igartu ez daitezkan,

arein baruza zabaldu daiten, ikusgarri.

Neure eskuen indar guztia jarten dot

23 arein ur-bideak sakontzeko.

Orregaitik, arein zustarrak arkaitz urratu-eziñetan sartzen dira.

Lurra be sendotu egiten da, baita aren enborra be.

24 Uda-erdian be euren ezetasuna gordeten dabe. Baiña, nik neure eskuak atzeratu banengiz, guztia gaztokia lez izango litzake,

25 mendi-bizkarrak lez aren enborrak,  
aren ur-bideak lopatz-lazkarrez estutuko litzakez,  
[aren arraiñak] txerketx uts,  
aren enborrak igartuta, biurtuta, uaska-ondoetan.

26 Aren frutuak basa-frutu biurtuko litzakez.  
Aren baruza igartu egingo litzake bero goriagaitik.  
Ez litzake urentzat [...] igarobiderik izango.  
Dardarak, aintzira-gatxak, zauri zabalduak.

27 Olantxe natza bertan-beera itzitako izakia lez,  
indar bagarik nago.

Nire zauriak andiagotu egiten dira

28 samíñez, miñez, ariñaldi bagarik.  
Nire biotza zati-zati eginda dago. Eiota nire barruan.  
Sheol-era jatsiten diranak lez,

29 ildakoakaz noa noraezean lez...  
Nire espiritua leza-baztarreraiño eldu zan.  
Nire arimea makaltzen doa gau ta egun, etenbagarik.

30 Nire azurretara su urtua isurten da,  
aren garrak iruntsi egiten nau egunen barruan,

31 neure indarrak ezerezturik,  
edozein iraupenek irago daiken baiño geiago.  
Iruntsiten diardu [garrak] nire aragia,  
beronen aurka erabagi dana bete arte.

32 Estaldu egiten nabe olatuak. Ito bearrez nago.  
Barruruntz eta kanporuntz indarrez erakarrita,  
neure eziña somatzen dot.

Nire giza-kemena argizari urtua lez ezerezten da;  
koldartasuna bakarrik geratzen da [...].  
Itsas-aundiko sakonak orroeka diardue;  
aren olatuak itzalak dira, erraldoiak, baiña odolezko-  
ak.

33 Lurra garrasika dago munduaren gaiñera dato-  
rren ondamentiagaitik.  
Azpikariak, "Gora!", diño deadarka.

Lurreko bizilagun guztiak burutik jota dagoz,  
34 ondamendi aundiaren erdian alboraka dabiz.  
Jaungoikoak trumoia lez joerazoten dau bere abots  
aaltsua.

Aren bizitoki santua gorabeeratu egiten da

Aren aintzaren tximist-isil dirdiratsuz.

35 Zeruetako gudarozteak bere abotsa jasoten  
dau.

Munduaren ondopeak dardaraka ta koloka dagoz.

36 Zeruko indartsuen guduak  
mundua zigorkadaz astintzen dau.  
Zigor ori ez da ondamendi amaibagea bete arte geldit-  
tuko.

Orrelaxe izango da amaia.

## XVII Gorapen-abestia

### IX sorta

2 Nire begiak ez dira gabez isten,  
3 erruki bagarik be [... ezin bizi naiteke].  
[Atzamatu egiten naz] sumin oldartsuan  
su ta gar [...] triskantzaz.

4 [Murgildu egiten naz] eriotz-olatueta.  
Inperuan lez natza etzanlekuan,  
arao, erosta, negar egiten dot.

5 Nire begiak, negarrez, labako keeaz minduta lez.  
Nire negar-malkoak amil-urak lez.  
Nire betseiñak erre egiten dira atsedena eskatzen  
dabela.

6 Nire espiritua urriñera egiten dau iges, urriñera;  
ez dot aurkitzen [espiritua].  
Nire bizitza ara-ona dabil:  
ondamenditik triskantzara, miñetik zaurira,  
esturatik zoritxarrera.

7 Eta, alan be, nire arimea  
zeure aal-izatez beterik dago;  
nire izatearen sakonean  
zuk ez nozula baztartzten ulertzen dot.

8 Aldia igarota batera,  
nire arimea zeure maitasun zabalean galtzen da.

9 Berba gaiztoak jaurtiko dautsadaz  
ni baztartzeko aalegiñak egiten dauzanari,  
iraiñak [jaurtiko dautsedaz] nire azkena billatzen

dabenai.

Nire auzia, ostera, zuzena dala autortuko dot;

10 izan be, ezagutzen dot zu zer zarean  
eta badakit zuk ni obeto ezagutzen nozuna.  
Atsegiñetan nago nire txiki-izateaz;  
zeugan bakarrik dot ustea azken-bagarik.

11 Eskari bat ezarri zenduan zure morroi onen  
agoan.

Nire biziarentzat ez zan izan baztartzetik, ez atzera-  
penik;  
zure bakea ez zan joan nigandik urrin,  
ez yatan gogora etorri be egin  
zuk ni bertan-beera itziko nendukezunik.

12 Zartadearen atzean zartadea [eroan dot]  
eta ez da nire itxaropena gutxiagotu.

Eutsi egin zeutsan nire espirituari,  
aunditu egin zenduzan nigan aren ormatzarrak.

13 Zeuk ezagutzen dozuz nire leia,  
nire esturea ta nire pozkaria.  
Zure parkamena miritza lako da.  
Nire damua neure leenengo obeneraiño luzatzen da.

14 Zure ontasun sakonetik  
beti sortzen da itxaropena,  
zure indarraren aal-izateatik  
uste ona dator niretzat;  
iñor ez da berez zuzena.

15 Zure aurrean iñor be ez da errubagea  
zeuk aztertzen dozunean.  
Gizon batek beste gizon bat zuzena dala autortu aal  
izango dau;

bera lakoan dan beste gizon batek be  
jakituna dala esan aal izango dautso.  
16 buztinaz egindako beste gizaki batek be  
goragarria dala autortu aal izango dautso.  
Bera lakoan dan beste batek  
espirituz indartsua dala autortu daike;

17 baiña zure ondoan iñok ez dau ezer balio.  
Zeu bakarrik zara goragarria azken-bagarik,  
edozein negurritik aruntzago zagoz zu;

zure jakituria ta zintzotasuna negurribageak dira.

18 [Leza bat] aregandik [Jaunaren jakituriatik] ba-  
nantzen diranentzat;  
baiña, zeuri eskerrak,  
ni zeure ondoan naukazu,

19 ez dozu urrintzen nigandik zure biozperatasu-  
na.

Zurbillerazo egingo dozuz zure arerioak,  
20 ni zirtzil bat, ondakin bat egin izateaz arrotzen  
zirala.

21 [...] ni [ezin ezereztu naikezu],  
[...] [nitzaz] ona zara-ta.  
Ez dira nagusitzen. Nire oiñak ez ziran jausi  
lakioaren burdiñetan.

22 Gizon aurpegi-gorrituak neure aurka diardue  
burrukan.

Zoritxarra nire txarto-esaleen aurka,  
23 nire Jaungoikoa zeu zara-ta;  
egunsentia ezkerro zeuk epaitzen dozu nire auzi-  
gaia.

Ni zigortu banozu,  
zeure jakitearen asmo ezkututsuagaitik izan da.

24 Estalduta dago niretzat zure egia  
zure burua zeuk agertzen dozun une bererarte.  
¿Zer da zure zigorradea niretzat?:  
poz-irrintziak sakonetik;

25 nire zauriak: osasuna;  
destaiñaldia niri gorroto dausten eskuetan nagoane-  
an: aintzazko koroea.

Nire makaltze betikoa: indarra.

26 Egia.  
Zeure jakitean egiten naz jakintsu,  
zeure aintzan egiten dau dizdiz nire argiak.  
Izan be, illunpeetako altzotik  
izar argitsu bat iziotu zan niretzat.

27 Osatu egin zenduan nire min bizia,  
sendarazo nire zauria,  
nire ezbaieruntz luzatutako indar miragarria.

28 Nire estura-barruan zabalduko toki-unea.  
Zeu [zara], ene Jainko ori, nire igesleku, nire gordeleku,

29 nire arkaitz, nire euskarri, nire gaztelu, edozein ezbeharerako magalpe.

30 Askatze ziurra zara;  
neure aitaren ernamiñean ezagutu nenduzun.  
Zeure bularretik edan neban ugatza,  
zeure errukiaren barruan isurten zan nire janaria.  
Ama-sabelean janaritu nenduan [zure errukiak].

32 Neure gaztarotatik argitu nozu  
zure jakituriaz eta zure adimenaz.  
Azkenengo unerarte gorde nozu  
zure espiritu santuaz —nire atsegiña!—.

33 Ezetz dirautsazu beti nire guzurrari,  
zure "Shalom" gordeleku bat da nire arimearentzat;  
nire ibilkerak negurtuta datoz zure parkamenaz batera;  
erruki ugariak inguratzen nau  
zure epaitzea neure izatearen iturbegira jatsiten danean;

34 nire ulea zuritu arte,  
zeu bakarrik izango zara nire euskarri.

35 Izan be, benetan, nire aitak ez nenduan ezagutu,  
nire amak zeugan itzi nenduan bertan-beera.  
Zeu zara egiari itsasten yakozanen aita;  
eurakan dozu atsegin,

36 bere bularrekoagana makurtzen dan amak lez,  
bere bernetan semea janaritzen dauan aitak lez,  
norberaren ardurea dauanak lez,  
bere umea ezagutzen dauanak lez.

### XVIII Gorapen-abestia

37 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
zure indarra zenbatu ezin-alako aldiz erakutsi dozulako [...]  
neugan jarri zenduzan bururapenak.

### X sorta

1 [...] zure biotzaren [...].  
2 Ezer ez da jazoten zure naitatik kanpo,  
3 inok be ez dau ulertzen zure gurarien sakontasuna;

izan be, ¿zer da gizona?: ezer be ez!  
Buztin eratu apur bat baiño ez,  
4 lokatzea izatera biurtuko dan autsa.

¿Zelan merezi neike  
zure miragarrietan eta zure ezkutu sakonetan irakatsia izaterik?

5 Ni, autsa ta errautsa izanik  
¿zetan aalegindu naiteke zeure gurarietan izan ezik?  
6 ¿Zer banandu daiket / zure erabagiak parean ezarri bagarik?

¿Zelan izan daiket adorerik / zeure indarrean izan ezik?

¿Zelan erabili daikedaz gaiak,  
7 nire barruan txutxu-mutxu egiten ez badozu?

¿Zer esan daiket, nire ezpanak egiazten dauzana zeu ez bazara?

¿Zelan erantzun daiket, oparizat zeure kemena emoten ez badaustazu?

8 Zeu, jainko guztietarik aundiena, agintedun gutien Errege,  
edozein espirituaren Jaun, edozein izakiren jabe!

9 Zeu bagarik ezer be ez da burutzen;  
ezer be ez da ezagutu, zuk berari izentatu bagarik.  
Zugandik kanpo ez dago ezer be.

10 Zure aurrean inor be ez da indartsu,  
ezek be ez dau balio zure aintzaren aurrean,  
zure aal-izatea zure negurritik aruntzago dago.

11 ¿Nor jagi daiteke aundikoi  
zure egintza arrigarrien aurrean?,  
¿nok izango dau zure ausi-eziñari gogor egiteko naikeriarik?

12 ¿Zer da autsetara biurtzen dagoana

zeure indarra zirikatzeke?

13 Zure betetasunari gaiñez eragiteko  
egin dozuz gauza guztiak-eta!

### XIX Gorapen-abestia

14 Bedeinkatua Zeu, Jauna,  
errukiaren Jaungoikoa, biotz onez aberatsa,  
dana ezaguerazo zeustalako.

15 Zure miragarriak ez dira isillean geratu bear egunez, ez gabez.

16 Nire arimeak zeure maitasunaren altzoan  
gordeta dagoala somatzen dau.

17 Orain arte zeure indarrean sendotzen naz [...].

18 Ezer be ez da egiten zeuk nai izan bagarik [...].  
Zure zorrotasunean ez dago ez bairik,

19 ez dago zure ezaguerari iges egin dagion jazo-penik.

20 Ni bateratuta nago zure egiaz;  
nire ezagutzean, barruan zeure dirdira daroat.

21 Zure ontasun eta erruki ugarietan  
luzatzen diran miragarri azken-bageak  
neuk ezagutzen dodazanez azaltzeko aalegiñak egingo dodaz.

22 Nire itxaropena zeure parkamenean ezarri arte  
igoten da zure parkamena.  
Zeure sutegian sartu nozu,  
neure irudia emon daustazu.

23 Ezin erakarri naike irabazi asko-naiak,  
ezkukurako ta aragi-senerako gordeleku be ez naz.

24 Nagusi-talde aaltsuak, samea jasorik,  
destaiñez begiraten dauz enparaduak:  
garaua, ardaoa ta orioa,

25 abereak eta garautegiak ugari daukazalako.

Zuk, ostera, ur-ertzean zugatza lez jarri nozu ni,  
26 baruza ugaridun zugatza, adar-zabala;

bizi-frutua daukan zugatza Adan-en semeentzat,

zure zustreretan oparo janaritutakoa.

27 Zure izatearen irudi diran semeai  
ezaguera emon zeutsen betiko,  
eta, ezagutze onen negurrira, goratuak izango dira,  
28 bata bestea baiño geiago;  
orrela, ugaritu egingo da aren oiñordetza Adan-en semearentzat,

29 geroago ta geiago izango da goratua bere ezaguera sakonagaitik.  
Zure morroiak barru-barruraino iguintzen dau gizaldi zuzenbagea,

30 eta setatien egokeran nire biotzak ez dau atsegiñik artzen;  
nire spirituak poz-bitsetan dago zure itunpen eta egiaz.

31 Atsegiñez beterik dago nire izate guztia,  
lirioa lez loratan nago;  
orrelaxe zabaltzen da nire biotza  
iturri betikoaren ondoan.

32 Nire salbamea goian dago:  
arroak frutu utsak daukez;  
frutu oneik, lora izatea itzi ebenez gero,  
utsik egon ziran beti.

33 Nire biotza bildur-ikarazko urrumadetan goibebratu zan;  
nire sentipenak urratuak izan ziran.  
Antzi egin neban orroeka,  
trumoiak trokarteetan oiartzun egiten dauanez.

34 Aren otsa Sheol-eko arrakaletaraino zabaldu zan.

Barru-sakoneraino nintzan bildur / zure auziari bildur neutsanean.

35 Aundiai buruz auzia,  
[goiko] santu aaltsuai buruz.

36 Zure egintza guztiai buruzko auzia / zuzentasuna da.

### XI sorta

1 Bildurraren eragillea [...] atsekabea azi egiten da [...] gelditu egiten naz  
2 neure espiritua ausnartzen.

## XX Gorapen-abestia

3 Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoikoa,  
zure izaki gaiso onegan,  
buztiñezko gizonkil zirtzil onegan,  
miragarriak egin dozuzalako.

Aregan zeure besoaren aal-izatea agertzen dozu,  
geiago ta geiago beti.

4 ¿Nor naz ni zure ezkutuak iragarten asi zakidazan?

Zeure egintzak ulertzea emon daustazu.

5 Nire agoan gorapenak jarten dozuz,  
nire miñean zeure ezpanetako gorespenak.  
Pozez abestu nai dot zure aal-izatea,  
zure errukia egun guztian ausnartzea.

6 Zeure izena bedeinkatuko dot,  
zeure aunditasunak azalduko dautsedaz Adan-en semeai.

7 Nire arimeak zeure ontasun ugaria atsegin dau.  
Nik badakit zure agoak beti berba bera diñoana.  
Zure eskuak zuzentasun bera [egiten dau],

8 eta zure bururapena ezagutzen dan guztira [zabaltzen da].

Zeure kemencan batzen da / dan guztiaren indarra.  
Zure aintzak zeure sumiñean egiten dau dizdiz,  
zigorak diran zure auzietan,

9 [baita] zeure ontasunean be,  
zure parkatze ugarietan.

Zure errukia zeure maitasunaren seme-alaba guzti-entzat [da].

Orrexegaitik irakasten dautsezuz zure ezkutuak,  
10 orrexegaitik egiten dozuz jakintsu zure asmo miragarrietan.

Zure aintza illundu ez daiten,  
garbitu egiten dozuz gizonaren agindu-austeak.

Santutu daiten,

11 kendu egiten dozu aregandik iguingarri dan guztia,  
edozein galdukeri, edozein egitada errudun,  
zintzoakaz alkartu daiten

12 eta santuen zori berbera izan dagian.

Jaso egiten dozu artxo ilkorra,  
onaren eta txarraren espirituaren arteko gorabeeretan sondotzen dozula.

Zeue ezagutzeko argitzen dozu,

13 gudarozte betikoagaz alkartuta / zeugana eldu daiten,

beti barriztutako espiritu argituagaz [alkartuta]:

14 oneik beti irauten dabe,  
badakie batzarreko gozotasuna zer dan.

## XXI Gorapen-abestia

15 Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoikoa.  
Goratu egiten zaitut, ene Arkaitz,  
zure ekintza zoragarriakaitik.

16 Izan be, zeure biziaren ezkutua ezaguerazo zeustan.

17 Zeure miragarriak agertu daustazuz.

Ni begira nagokie,  
[atsegin dot] zure naierea.

18 Badakit zuzentasuna zeurea dana eta salbamena zeure biozperatasunean dagoana,  
[zeure sumiñean] ondapena,  
zure errukia urritu bagarik.

19 Nigandik dolu ta samintasun-iturria sortu zan.  
Ez yatan oiñazerik parkatu.

20 Oi!, neugan ezagutu aal izan dot zenbat makurtzen dan gizona ilkortasunera,  
[autsetara], pekatutara, atsekabera,

21 erruaren larritasunera:  
pentsakera au, zorrotz antzean,  
nigan azurretaraño sartzan da.  
Miñaren oiñazezan sartzan naz.

## XXIII Gorapen-abestia

33 Bedeinkatua izan zaitezala, ene Jauna,  
gauzok egin dozuzalako

eta zuri erreguz dagoan zure morroi onen agoan

34 nire miñiak ozta-ozta dirautsun au jarri zendualako:

35 [...] indarra izan dot

36 eta zuk zure eskuetan [...].

## XII sorta

1 Aundiagotu egizu nire izate guztia [...],  
emon egidazu zure etxeko santu danaren sendotasuna.

Baretasuna nire txabolan, salbamena!

3 Zeure izena goratuko dot bildur dautsuenen artean;

4 kantuz eta gorapenez belaunikotuko naz  
gizaldiz-gizaldi etenbagarik eskaturik,

5 eguzki-sortzaldetik sartzalderaño, egun oro,  
erraldoi argitsuaren igaroteari jarraiturik.

6 Gaba datorrenean eta argia atzamatzen danean-eta arrezkero illunpeak nagusi izaten

asten diranean —gaualdia—,  
[otoitzean] asten naz ni bakarrean,  
goiza eldu arte

7 eta illunpeak argitan ezereztu eta euren bizitokira aldendu arte.

Guztientzat etenbagarik  
urteten da gaba, sartzan da eguna.

8 Aldiaren izarrek  
aldiak eta mugatutako epeak negurtzen dabez.

9 Euren ezaugarrien [zeru-gerriaren] negurria euren eragin guztiaz

Jaungoikoak berak emon dautsen eraz igaroten dira.  
Danaren eta izango danaren autorpena egiten dabe.

10 Ez dabe azkenik. [Jaungoikoaren] esate ori bagarik

22 Doluzko erosta-zitareak josten diardu,  
illeta-abestiak, samintasun-erostak,  
gaiztakeria ezereztu arte,  
edozein zauri ta geiso garbitu arte.

23 Orduan, poz-zitarazko soiñua asiko dot,  
atsegin-zitarea, gorapenari dagokion txilibitua.

24 ¿Nok esan aal izango dauz  
izaki guztien artean isuritako zure miragarriak?

25 Ango guztiak betiko goratu zagiezala,  
bedeinkatu zagiezala zeure doaiakaitik  
guztiak batera soiñu berean.

26 Poz-bitsetan bakarrik egon zaitezala,  
ez da geiago izango negarrik, ez negar-malgorik.  
Amaia gaiztakeriari. Zure egiak dizdiz egingo dau.

27 Aintza betikoarentzat / bakea betikoa izango da.

28 Bedeinkatua zeu, zure gozotasun ugaria zeazteko

zure morroi oni adimena, ezaguerrea  
eta zeure miragarriak bereiztea  
emoten dautsazuz-ta.

## XXII Gorapen-abestia

29 Bedeinkatua zeu, errukiaren eta graziaren Jainko ori!,  
zure errukiagaitik, zure izate aberatsagaitik,

30 zure egintza guztietan dozuzan ontasun ugaria-kaitik!  
Poztu egizu zure doiaz

zure erreñuko laguntza.

31 Garbitu nagizu zeure zuzentasunean;  
izan be, zeure ontasunean dot itxaropena,  
zeure biozperatasunean jarten dot ustea;

32 zeure parkamenez askatu nenduzun nire miñetatik,  
baita adoretu be nire oiñazezan,  
zeure errukietan sendotzen naz-ta.

ez dago ezer be.

Jaungoikoak, dana dakian ezkeru,

11 ezarri eban ori.

Iñor be ez da besterik Aren ondoan.

Nik, ikasle nazan onek, ezagutzen zaitut, ene Jauna,

12 nigan zeuk jarri zenduan espirituaren bitartez.

Adi-adi entzun nebazan zure ezkutu miragarriak.

Espiritu Santuaren eragiñez,

13 zeure jakituriaren misterioaren ezaguera sakondu zenduan nigan.

Zeure aal-izatearen amaitu-eziñak

14 agertu dau ori, erruki ugariaren

eta zaletasun garbitzaillearen erataru.

15 Zure aintzaren dirdira / argi amaibagea izango da.

16 Ez [da izango] geiago dongakeriarik, ez marrokeriarik.

17 [...] triskantzarik. Izan be, arrezkero ez da izango [...]

18 ez ondamendirik. Izan be, zeure aurrean nire oiñazea.

19 Iñor be ez da guztiz zuzena zure aurrean.

20 Gizon ikasia zure misterio guztietan

bereala erantzuteko [...]

21 zure zorrotzaldian;

zeure ontasuna agertzeko, [...]

22 ezagutuko zaitue,

aldia eltzean, zeure aintzan poztuko dira [...]

[...] erara

eta zeure adimenaren arauz

23 urreratuko zakiez.

Zeure aal-izatearen erataru otseinduko zaitue,

zeure banantzeen arauz,

24 zure berbak iñoiz be ausi bagarik.

Niri buruz, [¿zetarako ardurarik?]

edozela be autsa baiño ez naz-ta!

25 gaiztakeri-iturri, ezeuki utsa,

uraz oraatutako lokatza pilloa,

26 illunpeen gela.

Biurtu daitela autsetara buztiezeko izakia.

Bai; unea eldu daitenean, autsetara biurtuko da;

27 autsetatik izan zan urtena.

¿Zer erantzungo dau autsak?,

¿Zelan ulertu aal izango dau?,

28 ¿Zelan egin aal izango dau gogor

bera zigortzen dauanaren aurrean?

29 ¿Igo aal izango ete-da goi betikoaren aurrean?,

aintzaren ezaguerearen iturburu bera dan Aregana?

30 Ezta espirituaren erraldioak be

ezin azaldu daikee zure aintza.

31 Iñok ezin daikeo erantzunik emon zure zigorrari,

zu zuzena zara-ta. Iñor be ez zu lakorik!

Izan be, ¿zer da nai ta nai ez autsetara biurtu bear dana?

32 Isilik geratu naz; ¿zer esan bear dot orretzaz?

Ozta-ozta egin daikeet berba ia ezer be ez dakida-naz.

Buztiezeko izakia, ¿Zelan izan daiteke zuzena?

¿Eta zer erantzungo dot irakasten ez banozu?,

34 ¿zer esango dot, leenen neure biotzari agertzen ez badautsazu?

¿Zelan ibili naiteke ni bidean zuzen,

nire oiñak zeuk sendotzen ez badozuz?,

35 ¿Zelan egon daitekez sendo nire oiñak,

zeuk indartzen ez badozuz?,

36 ¿Zelan jagi naiteke, zeuk [jasoten ez banozu?].

#### XXIV Gorapen-abestia

#### XIII sorta

1 Betidanik zeu zara Santua.

2 Zure misterioen miragarrietan [...].

3 Zeure eskua erakutsi zenduan [...] zure egintzen bidez.

Eurotan [...].

4 Egi-egintzak.

5 Amor-emote betikorako [...] guztientzat; ondamendi osorako [...].

6 Aintza betikoa, atsegin etenbagea aren etxekuntzetan.

7 Zeuk ezarri dozuzan etxekuntzak.

8 Gauza guztiak gaiñeratzen dautsezuz espirituen gudarozteari ta zure santuen batzarrari.

9 Zeure eskuetan dago dan guztia, lurra ta onek artzen dauan guztia, itsasoak eta onein sakonetan igitzen dana.

10 Zeure begien azpian daukazuz beti, betirauna baiño leen ezarri dozuz-ta.

11 Egintzak zeure aintza azaltzen dabe, zeure aal-izatea agerrerazoten dabe, leen iñok be ikusi izan ez ebana ikuserazo dautsezu-ta,

12 gauza barriak sorturik, leen egoana aldaturik, betikoa izango dana birrezarririk.

13 Izan be, zuk, Jauna, betiko irauten dozu. Jazopenok zeure adimenaren asmo ezkututsuctan sarrazo dozuz, zeure izate gurgarria agertzeko.

Izan be, ¿zenbat gaintzen dau guzti onek izaki ilkor errukarriak ulertu daikeunik?

14 ¿Zelan aalegindu gaitkez / zure ezkutu aundi ta miragarrietan sartzeko?

¿Zer da emakumegandik jaioa zure egintza aunditar guztien artean?

15 ¿Zer da uretan oraatutako auts samar bat, pekatuzko zaborreria,

16 espiritu gaiztoak azpiratutako billoiztasun lotsagarria, gaiztakeriari ekiten badautso or baztartuta geratzen dana, geroko gizaldientzako gomutagarri lez?

17 Utsean emondako zeure laguntzaz bakarrik geratzen da zintzotuta gizona,

zeure ugaritasunaz benetan salbatuta, 18 zeure dirdirak bakarrik goratuta. Aren atsegiña / Shalom betikoan [...].

#### XXV Gorapen-abestia

#### XIV Sorta

1 [...] zeure errian izan daitena]

2 [...] egian gizon sendoa lez

3 [...] erruki aundikoa.

Espiritu garbituen iturri [...].

4 Zure auzietako aldiak arte sendotu diran areik.

5 Zeuk sendotzen dozuz zure araudiak

6 gizaldien gizaldietan zeure santutasuna diztirazoteko

7 eta zeure ikuspenaren gizonai laguntza emoteko.

#### XXVI Gorapen-abestia

8 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,

nire biotzean adimena ezarri dozulako,

9 dongakeriaren aurka ni sendotu naiten;

zeure izena bedeinkatu dagidan;

10 benetan maite dozuna aukeratu

eta gizonagan iguintzen dozunari

11 gorroto izaten jakin dagidan.

12 Aren egitadak onaren eta txarraren erataru dirata.

Zeuzara ori jakiñerazoten daustazuna,

13 zure biozperatasunagaitik

zeure Alkartasunean sartu naz-ta.

Santutasun-espituaren bidez

sartzen nozu zure ulertzean

14 eta bide geiago egin eta geiago sututen naz

gaiztakeria egiten dabenen aurka,

gizon guztien aurka.

Zure ondoan benetan dagoan iñor be ez da

zure agotik urtendakoaren aurka jagiten.

15 Zu ezagutzen zaituenak ezin gorrotatu daikeez zure berbak, zuzena zara-ta; zure aukeratuak zintzoak izan bear dabe.

16 Zuk edozein zuzenbagakeri(a) ondatu egin dozu betiko.

Zure zuzentasuna izaki guztien aurrean agertuko da.

17 Badakit nik zure begien aurrean txarra zer dan.

Niganako zure esku-zabal ugaria txarraz parean jarrita dakit nik ori.

Zin eginda beartu dot nire burua

zure aurka iñoiz be pekatuik ez egitera.

18 Ez dot ori egingo. Onetan sendo nago.

Badagoz ni sinisten nabena.

Nik lagunartera ekarri dodaz,

19 bakotxaren ezaguerari dagokionez.

Bakotxa, berak artu dauan doaien eratarazango dot maite,

oiñordetzan parteartzaile danez.

Ez dot gaiztoa koipatu.

Ez dot dongen bezuzarik gordeko.

20 Ez dot egia aberastanagaitik salduko, ez naz doigaitik zure erabagietatik aldenduko.

Bakotxa zeure ondoan egon daiten negurrira

21 izango dot maite.

Zeugandik urrindu daiten negurrira iguinduko dot.

22 Ez naz Belial-en gizonakaz batzarra egitera sartuko,

zure itunpenetik banandu egin ziran-eta.

### XXVII Gorapen-abestia

23 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna, zure indarraren aundi-izateagaitik

eta zure aberastanaren eskintza betiko ta barriz-tuagaitik.

Zure errukia bai aundia,

24 pekatutik urrintzen dauana parkatzen dauan errukia!

Epaitu egiten dozu dongen gaiztakeria, maite egiten dozuz biotz zabalez emoten dabena.

Goroto dautsazu zuzenbagekeriari.

Ni, zure morroi au,

ezaguera-espirtuaz lagundu nozu

26 gaiztakeria iguintzeko.

Biotz zabalez izango zaitu maite,

neure biotz guztiaz,

27 zeure eskutik bakarrik datozen errukiak gogoraturik.

### XXVIII Gorapen-abestia

#### XV sorta

... ..

9 Jauna, egun guztietan maitatuko zaitut, eskintza osoz, biotz-biotzez, arima guztiaz.

Garbitu egin dot [nire biotza]

11 Zuk galduazo dozun guztitik [ni urrintzeko].

Nire burua "aundiai" lotzea [erabagi dot],

12 onezkero zure erabagiak iñoiz be bertan-beera ez izteko.

Zure argitzeaz, ulertu dot, bai,

13 gizonak, berenez, ezin garbitu daikezana bere zidorrak,

ezta bere bideak sendotu be.

Badakit espirtu bakotxaren zoria zeure eskuan dagoana

eta aren [oinkada] bakotxa

14 a sortu izan baiño leen erabagi dozuna.

¿Zelan aldatu aal leike iñok zure barbarik?

15 Zeuk sortu zenduan [gizon] zuzena.

Sabelean ezkerro sendotu zenduan,

zeure naiaren erataraz ezarri zenduan itunpenaren inguruan,

zeure zidorretatik joan zeiten.

Aretzaz erruki izatea izan zenduan nai;

16 zeure erruki ugarietan [erabagi zenduan]

ari salbamen betikoa emotea,

estutasun guztitik atara zenduan!

Bake osoa arentzat.

17 Aren gorputza aintzarako agerrera zenduan.

Dongak ama-sabelean ezkerro izentatu zenduzan riskantzarako, zeure alderako.

18 Bide txarretik doazalako;

zure itunpena iguindu egiten dabe.

Goroto izan eutsoen zure Legeari.

Ez eutsoen atsegiñik artu zuk agindu izan zenduana-ri.

19 Zeuk iguintzen dozuna aukeratu eben, ain zuzen be!

Orain, euren lepoan eroan bear dabe

zure epai zuzenen sorta

20 izaki guztien aurrean.

Gizaldi betikoentzako ezaugarria,

[gizaldi] guztiak zeure aintza

21 eta zure indar aundia ezagutu dagiezan.

¿Zer da aragia, zure misterioak ezagutu nai dagi-zan?

Autsa izanik, ¿zelan sendotu bere oinkadak?

22 Espiritua eratu zenduan Orrek,

neure ekiña be [zaintzen dozu];

zeugandik dator edozein bizidunen bidea.

23 Nik badakit egia bardintzeko ondasunik ez dagoana.

Nik badakit guztien artetik aukeratu dozuzana.

24 Areik betiko otseinduko zaitue.

Zuk ez dozuz ontzat artzen doai gaiztoak,

ezta gaiztoen egintzetatik be ez dozu saririk jasoten,

25 zu egiazko Jaungoikoa zara-ta.

Ondatu egiten dozu edozein zuzenbagekeri(a).

[Gaiztakeria] ez da geiago bizi izango zure aurrean.

26 Badakit zindokuntza guztia zeugandik datorre-

na.

31 Zeuk biurrerazoko dozuz gizonak

Adan-en aintzara.

### XXIX Gorapen-abestia

#### XVI sorta

.....

2 [Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,] zure espirtu santuaren bidez

3 zeure biozperatasun osoa [ulerterazo daustazulako].

Ulertu dot / izate guztia, zeru-lurrak,

zeure aintzaren ditziraz argitzen dirana.

4 Zeure naiaren bidez egiten dautsazu lagun eten-bagarik gizonari,

zure eskintzak betiko iraungo dau.

5 Badago gizonari dagokion toki bat.

Zeuk erakutsi zeutsan,

or zure erabagietan sendo iraun aal dagian.

6 Gauza guztiok ezagutzen dodazan ezkerro,

aterpe bat iragarten dot nigandik urrin.

[Orreaz] neure agindu-austeak estaldu nai izatea

[obena izango litzake].

Zeure egiazko espirtua billatzea da [nik gura dodana].

7 Ni zeure espirtu santuan garturik.

Zeure Alkartasunaren irakurte bikaiñari itsasirik

[...], aundikeri(a) bagarik, eragozpen bagarik.

Nire biotzak txinpartak ataraten dauz

zure izenaren maitasunean.

### XXX Gorapen-abestia

8 Bedeinkatua zeu, Jauna, izatearen egille,

bizi-iturburu, egintzetan aaltsu ori!

Zeurea da sortzearenugaritzea!



Eskerrak zeuri, niri buruz

9 biotz ona erabiltea  
eta ni zeure errukien ekarriaz  
eta zeure aintzaren ondasunaz  
laguntzea erabagi dozulako.

Zeuri bakarrik dagokizu zuzentasuna,  
aalegiñik egin bagarik dana egiten dozuna zeu zara-  
ta.

10 Neure gorputza garbitzeko aalegiñik egiten  
dodaz,  
zuk espiritu zuzenean ezaugarri bat jarri dozuna ba-  
dakit-eta.

Baztatu egiten dot edozein bidebagekeri(a).  
Zure otsein onek gorroto dautso edozein zuzenbage-  
keriari.

11 Ondo dakit nik zuzena iñor ez dana, zeu izan  
ezik.

Orregaitik, nasai aurkezten naz zure aurrean,  
nigan isuri dozun espirituan [sendotuta].

12 Zeure gurariak burutzeko aalegiñik egiñik  
alkartzen dodaz zure ondasunak.

Nire burua santutasun-espirtuaz garbiturik.  
Zeure maitasare negurtu-eziñak erakarrita  
urreratzen nakizu, zeure naitan, [beti]

13 [...] nigaz [...] zure maitasunean [...] zeu maite zaituenentzat aukeratu dozun zatian [...] zeure aginduak gordeten dabenentzat eta betiko zeure aurrean egon daitekezanentzat.

14 Zure morroiak beronen egintza guztietan  
espirtuan eskuartzea [billatuko dau].

15 [...] Ez dagiala [zure morroiak] agindu-austerik  
ausnartu

zure Alkartasunetik kanpo [...]. Izan be, [...]

16 aintza [...] [Jaun] errukior ori, erruki izaten eta  
parkatzen biotz-zabala [...].

Gaiztakeria parkatzen dauan A

17 eta parkamen aundia [daukana] aginduak gor-  
deten dabezanentzat [...]

eta biotzez eta oso-osorik onbideratzen diranentzat

18 Zeu otseintzeko ta zure begien aurrean on dana  
beteteko.

Ez okertu zure aurpegia zure morroiagandik  
eta ez [egizu baztatu] zure mirabearen semea.

19 Eta nik zeure berban ezarriko dot ustea [...].

### XXXI Gorapen-abetia

XVII sorta.

(Oarra: Gorapen-abeti au ez da ondo ulertzen:  
narrukiak muskilduta, antza.)

1 Txikiak, negurri bagarik [...]

2 aren jakintza agertzen dabe [...] gaiztakeria

3 iruntsiten dauana [...] urtetan dan

4 toki legorra [...] babes-bagea)

5 burrukan bat-batean sarturik [...]

6 zeure spiritu zeatzak billatzen dau,

7 sendotasun-espirtuaren aginduak jaurtiko dau

8 esturetan [...]

9 ezin lortu izan dabezan gauza ezkutuakaitik.

10 Dongakeri-sentzun eta bururapenakaitik [...],

11 auziagaitik [...]

zure morroia agindu-auste guztietatik garbitzeko  
[...]

12 Moises-en bidez esan dozunez [...]

agindu-austea ta pekatua, saldukeria ordaindurik

13 [eragin] egingo dautsezu mendien ondopeai  
eurai [...]

eta suak Sheol-eko sakona be irutsi egingo dau  
[... oben egiten badabe]

14 zure auziak [...] sinismenez otseintzen zaituen  
guztai

arein ondorengoak zure aurrean

egun guztietan iraun dagien [...] eta [...] sorrerazoko  
dozu[z],

15 [arein gaiztakeria] guztiak urrin jaurtirik

16 eta Adan-en eta gizaldi-taldearen aintza guz-

tian  
areik partcartzaicelle egiñik...

### XXXII Gorapen-abetia

17 [Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna],  
nigan jarri dozuzan espirtuakaitik.

Nire miñean erantzuna [aurkitu nai neuke],  
zure egitada zuzenak

18 eta zure erabagien biotz zabala azaltzeko.

Zeure eskumearen egintza aaltsuak  
eta nire lcengo pekatuen parkatzeak [abestuko do-  
daz].

19 Erregu egingo dot [nire pekatuakaitik]

eta nire egintza gaiztoakaitik,

nire biotzaren biurritzeagaitik.

Gaiztakeriaz itundu naz.

Zure burubideetatik kanpo [ibili naz].

Ez naz alkartu [...].

20 Zeuri bakarrik dagokizu zuzentasuna

eta zeure izenari bedeinkapen betikoa.

Zeure zuzentasunaren arauz erosten dozu zure mo-  
rroia,

21 [dongak ondatuak izango dira].

Jakituriari jarraitzea aukeratzen dabenen bidea

bikain egiten dozula aditu neban nik.

22 [Onik ataraten dozu zure aurka pekatu egitera  
makurtzen dana,

alakoa becratuaz eta zigor mingarrien bidez [...] zure  
biotzari [...].

23 [...] [Galcrazo egiten dautsazu] zure morroiari

zure aurka pekatu egitea

eta zure bidectan koloka ibiltea;

gogor egiteko ta sendo irauteko [indarra emoten dau-  
tsazu],

24 baita bide zuzenetan be, zuk maite dozun edo-  
zetan,

zuk iguintzen dozun edozetatik urrin

eta zure begien aurrean ona egiñik irauteko be

(indarra emoten dautsazu) [... zure maitasunagaitik]

25 nire barruan, nire espirtuak zeure morroiaren  
(espirtua)  
billatzen dau-ta [...].

### XXXIII Gorapen-abetia

26 Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
nire gaiñera zeure Espiritu Santua isuri dozulako.  
Garbitu egin nenduzun [edozein gaiztakeriatik].

27 [Sendotu egin nenduzun] zure Alkartasunean.  
Gizonagandik gorde egingo naz [...].

¿Nok aurkituko nau?

28 Billa dabizan guzti areik [...]

betiraundanik betiko [...].

XVIII sorta

1 Zeuk ezarten dozu argia,

2 betiko dizdiz egiten dauan argia.

3 Izan be, zugaz argi amaibagea dago

4 eta lokatzeaz egindako entzumena zabaldu egin  
dozu,

5 zeure morroiaren adorea [jasorik],

sendotasun betikoa betiko billatzen dau-ta [...].

6 Dizdiz egin begie zure [ezkutu] miragarriak

7 zure berbak entzuten dabezan guztien begietan.

Zeure esku aaltsuaz eutsi zeustan

8 ni zeure eskumearen indarraz zuzentzeko.

9 Ez ezkutatu zure eskua erriari,

itunpenari alkartzen yakon edonor

10 betiko zeure aurrean egon daiten.

[Iturburua] edegi zenduan zure morroiaren agoan

11 eta aren miñean [zeure aginduak] ezarri dozuz:  
eurok berak ulertzean,

gizonai somagari egin dagitzezan,

12 au neu lako apalai adierazo dagitsen.

Buztiñezko izakia urtenezoteko edegi zenduan sa-  
bela.

13 Bideak, emakumegandik jaiorearen erruak [...] aren egintzakaitik.

Egi-iturriruntz erakarri zenduan zure aal-izateaz zeuk batu dozun izakia,

14 zure bakearen mandatarari / bera izan daiten, beartsuai barri ona iragarriarik, zeure errukien arauz,

15 [areik santutasun]-iturrira [edatera eroanik). espiritu damutuai naiz atsekabetuait adorea emonik, aintza betikoaz.

16 Emakumegandik jaiotako a [...] arrotu egiten da].

17 Zure zuzentasunean [...] iragarten dautse au]

18 orrelako gauzak ikusi ez ebezanai [...].

19 ¿Zelan ezagutu aal izango dot ori] nire begiai zeuk agertzen ez badautsezu?

20 ¿Zelan entzun daiket ori, nire entzumenetan zeuk joerazoten ez badozu?

Arrituta geratu naz, Berbea erdainbagearen entzumenara

izan dala iragarria / jakitean.

21 Gizonaren biotzean [zeure egia agiri izan da]. Guzti au, zeure naiagaitik beragaitik asi zareala burutzerara

konturatu naz, ene Jaungoikoa!

22 ¿Zer da gizona, miragarri guztiok [aregan burutu dagizuzan]?

Zu bai agertu zareala indartsu zure asmoetan! Zuk bai ezarri dozula guzti au zeure aintzarako!

23 Zeuk sortu zenduan [espirituen] gudaroztea, gizonai zeure egitsariak eta [emakumegandik] jaiorentzat ezarritako aginduak azaltzeko ezaguera.

24 Zeure Alkartasunean [irauten dot] zeugaz [...] autsezko biotzari,

euren buruak [gaitz guztitik] zaindu dagiezan

25 eta maltzurkerietatik, guzurrezko erizpidetik, iges egin dagien, zeure errukiaren arauz.

26 Lokatzazko gizakia naz ni;

nire biotza, arrizkoa: ¿zegaitik izango naz epaitua onetzaz ezer ikustekorik izan ez badot?

27 Izan be, [zeure asmo] miragarrietan, autsezko nire belarrietan

zeure erabagi betikoak ezarri zenduzan.

Bai, arrizko biotzean zizelkatuta!

28 Barriro etorrerazoz zenduan zugaz Alkartasunean sartzeko

29 eta [zeure itunpenean] iraunerazoteko, iraupen betikoan,

egunsenti betikoaren argitan.

30 Bakezko epe jakifietan.

31 Autsezko izakia naz ni [...]

32 ... .. zabalduko dot.

\* \* \*

#### KUNRAN-GO SALMUAK

*Salmu oneik oso ederrak dira, Biblian datozanak baizen onak, adierazleak dirioenez. Zortzi dira guztiz. XVIII-garrenean asten dira.*

#### XVIII Salmua

*18garren Salmu onetan iru persona-talde agertzen dira: lauak, zintzoak edo bikaiñak, eta gaiztoak. Persona lauak, lagunarteari batzeko egiten yake dei.*

*"Jainkozaleak eta onak" parean ezarten dira, baita jakituria darabilena eta opariak eskintzen dauzana be. Jakituria / persona lez artzen da.*

1 Alkartu egizuez bikaiñakaz zuen arimak. Goratu egizue bikaiñakaz batera Gorengoa, alkartu zakieze bikaiñai.

2 [Lagun] lau guztiak Aren salbamena ta aunditasuna ezaguerazoteko ardurabageak ez izan.

3 Izan be, Jaungoikoaren aintza agertzeko emon yatzue jakituria.

4 Baita Aren egintza pilloa esateko be, Adan-i ezaguerazoz yakozanak.

5 [Persona] lauak Aren sendotasuna agertzeko; biotz-astunak Aren aunditasuna ulerterazoteko; Aren ate-zubietatik urrin dagozan arei; euren oinkadetan uts egiten diarduenai.

7-8 Bera, Gorengoa, Jakob-en Jaun bakarra da-ta.

9 Aren aunditasunak egintza guztien gaiñetik egiten dau dizdiz.

Gorengoa goratzen dauan gizona da

10 Aren atsegingarri; odol-bagako oparia eskintzen dauan gizona, auntzak naiz zezanak eskintzen dauzana lez.

11 Altara-gaiñean opari pilloaren koipea ezkin-tzen dauana lez, zintzoen eskutik usaingarri gozoa eskintzen dauana lez.

12 Zintzoen ate-zubietatik entzun zan aren abotsa, 13 Jainkozaleen batzarretik [igoten da] aren abes-tia.

Ase arte jaten dabenean, aretzaz egiten dabe berba, eta, alkarregaz anaitasunean edaten dabenean,

14 Gorengoa lezea ausnartzen dabe. Arein berbak Aren sendotasuna ezaguerazoteko dira.

15 Dongakandik urrin dago, benetan, aren [sendotasunaren] berbea, gaizto guztiakandik urrin ezaguera!

16 Jaungoikoaren begiak, barriz, onakanako biozperatsu.

Ugaritu egiten dau Arek bere biotz-ontasuna Bera goratzen dabenen gaiñera.

17 Askatu egingo dauz aldi txarretik arein arimak. Bedeinkatu egizue Jaungoikoa, apalak arrotzen eskutik erosi

18 eta bikaiñak dongen eskutik askatu egiten dauz-

ta; Jakob-en indarra agerterazoten dau, baita Israel-dik errien auzi-ebazle bat be.

19 Berak jarri eban bere txabolea Sion-en, eta Jerusalem-en bizi da betiko.

#### XIX Salmua

*19garren Salmu au askatze-salmua da. Gizonak, alde batetik bere makaltasuna eta bestetik bera inguratzen daben ainbat arrisku ikusirik, ez dau bere burua sendo ikusten, eta eskari au egiten dau: ez daitela ondամendian jausi eta Satanasegandik askatu daitela.*

1 Lur-arrak ezin goratu zaizez, ezta biziotxoak be zure biozperatasuna azaldu.

2 Bizidunak, arnasadunak, onek bai, onek goratu egiten zaitu.

Oin-koloka dagozan guztiak bedeinkatu egingo zaitue

3 zeure biozperatasuna ezaguerazoz dagizunean eta zeure zuzentasuna irakatsi dagiezunean, edozein bizidunaren arimea zeure eskuan dago-ta.

4 Badakit aragi guztiak biziak zeuk emon dautsezu-na.

Egizu gutzaz, Jaungoikoa, 5 zeure ontasunaren craz, zeure erruki ugariaren craz

eta zeure zuzentasun-egintza pilloen eraz.

6 Entzun dozu, Jaungoiko orrek, zeure izena maite daben guztien berbotsa, eta ez dozu aldendu arekandik zure arreta.

7 Bedeinkatu Jaungoikoa, zuzentasun-egintzak beteten dauzana,

8 Jainkozaleak biozperatsu ta errukitsu koroea ezarten dautsena.

Nire arimeak deadar egiten dau

zure izena esker-emoteaz goraturik;

[nire arimea] poz-bitsetan dago zure errukiakaz.

9 Ez da azkenik egon bear zure zintzotasuna ta gorapena iragartean.

Eriotz-zorian nengoan

10 nire pekatu ta gaiztakeriakaitik,

Lezara saldu izan nenduen gaiztakeriakaitik.

Jaungoikoak atara nenduan onik

11 bere errukiaren eraz

eta bere zuzentasun-egintza ugarien eraz.

Egia esan, maite dot nik zure izena,

12 eta zeure gerizpean babestu naz.

Nire biotza adorez beteten da zure aal-izatea gogoraturik.

13 Zeure errukian jarten dot nire ustea.

Parkatu, Jaungoiko orrek, nire pekatua.

14 Garbitu egizu nire dongakeria.

Emon egidazu sinismen eta ezaguera-espirtua, eta ez daistala iñok nire izen ona kendu.

15 Ondamendian, ez nagiala Satanas-ek azpiratu, ezta espirtu zikiñak be!

16 Oñaze ta jokera gaiztoa ez daitezala nire azurren jabe egin.

Izan be, zeu zara, Jaungoiko ori, nire gorapena,

eta zeugan dot itxaropena egun oro.

Poztu bediz nigaz batera nire anaiak eta nire aitaren etxea,

zeure laguntzaz arrituta.

18 Poztu egingo naz betiko.

.....

## XXI Salmua

(20garren Salmua ezin irakurri daiteke, antza.)

6-10garren atalxoak seksu-arriskuak dagokiez.

1 Gaztea nintzan / nik uts egin baiño leen, eta uts ori gura izaten asi nintzan.

2 Bere edertasun guztiaz etorri yatan eta aren sakoneraiño arakatu neban.

3 Lorea zimelduarren be, maatsa eltzen danean, onek poztu egiten dau biotza.

4 Nire oiñak gozotasunean sendotu ziran, neure gaztarotik ezagutu neban-eta.

5 Zabaldtu egin neban nire belarria eta aundia be aundia izan zan nik artu neban irabazia.

6 Zori ona izan zan niretzat.

Nire indarra zeure irakásleari emon neutsan.

7 Alaia izateko asmoa artu neban,

atsegiñean gartsua izan nintzan

eta ez neban nire asmoa izten;

8 orregaitik, sutu egin neban nire burua

eta ez neban nire aurpegia aldendu.

9 Orregaitik, astindu egin neban nire burua

eta ez neban goietan kolokarik egin.

10 Nire eskua zabaldtu eta beronen ezerezari begira

egon nintzan,

garbitu egin nebazan esku-azpiak

.....

## XXII Salmua

*Sion, Jerusalem be bada, eta aren ondasunak Mesias-en ondasunen irudi dira.*

1 Zure mesedek bere aldian [...]

1b Neure indar guztiaz bedeinkatzeko ekarten zaitut gogora, Sion.

2 Nik maite izan zaitut. Bakea etorri bedi.

3 Zure salbamena usteak [...].

Gizaldiak eta gizaldiak bizi izango dira zugan.

Jainkozaleen gizaldiak.

4 Zeure edertasuna izango dira:

zure salbamenaren eguna biotzez gura daben guztiak

osotasunaren aintza ugarian be poztu egingo dira.

5 Zeure aintzatik janarituko dira.

Zure plazetan saltoka jardungo dabe.

Ekarri egizuz gogora zure profeten maitasurreak,

6 eta zeure Jainkozaleen egintzetan izango zara goratua.

Baztartu egizu indarkeria zure erditik.

7 Zeuro kenduak izan beitez zugandik

maltzurkeria ta zuzenbagekeria.

Poztu egingo dira zure semeak zure barruan.

Zure maiteak zeuri lotuta egongo dira.

8 Zure aukeratuak bai itxaron dabela zure salbamena!

Zure aukeratuak bai egin ebela dolu zugaitik!

Ez bedi galdu, Sion, zure itxaropena,

9 ezta zure iraupena erantzun bagarik geratu be.

¿Zein zintzo galdu da iñoiz,

10 eta nor urten da onik iñoiz bere zuzenbagekeri-tan?

Gizona beronen bidearen arauz izaten da aztertua.

Bakotxari bere egintzen negurrira emoten yako ordaiña.

Zu inguratzen zenduezan arerioak, Sion, ondatuak izan ziran.

11 Zure kontrakoak sakabanatuak izan ziran.

Atsegingarri yako [Jaungoikoari]

zugandik datorren gorapena, Sion!

12 Mundu guztira zabaltzen da.

Askotan gogorazoten dausat / zeu bedeinkatzeko.

Biotz-biotzez bedeinkatzen zaitut!

13 Zuzentasun betikoa jadetsi daikezu zuk,

baita santuen bedeinkapena artu be.

14 Artu egizu zutzaz esan zana:

profetak agertu ebezan amesak.

Jagi, zabaldtu zaituz, Sion!

15 Goratu egizu zure Gorengoa, zure Salbatzaillea.

Nire arimca poztu egingo da zure aintzan.

## XXIV Salmua

*Salmu onek, "Erruki izan zakidaz" ("Misere-re") salmua dakarsku gogora.*

1 Dei egiten dautsut, Jaungoikoa: entzun nagizu, arren!

Nire eskuak zeure bizitoki santurantz luzatzen dodaz.

2 Zabaldtu zure entzumena eta entzun nire erregua; ez egizu baztartu nire eskaria.

3 Onik atara egizu nire arimea, ez egizu ondatu; ez daitela billoizik geratu dongen aurrean.

4 Urrindu egizuz nigandik gaiztakeria saritzen dabena,

Egiaren Auzi-ebazle, Jaungoikoa!

5 Ez nagizu epaitu nire pekatuen negurrira, zure aurrean bizidunik bat bera be ez da zuzena-ta.

6 Irakatsi nagizu, Jaungoiko orrek, zure legean, irakatsi egidazuz zure erabagiak.

7 Orrela, entzun egingo dabez askok zure egintzak,

eta atzerriak goratu egingo zaitue.

8 Gomuta zaituz nitzaz, ez zaituz nitzaz aaztu, eta ez nagizu esturetari jarri.

9 Urrindu egizuz nigandik nire gaztetako pekatuak.

Ez izan gogotan nire utsak.

Garbitu nigan ezpan gaiztoak.

Ez zaituz sumindu nire aurka.

10 Kendu nigandik arein zuzarrak,

ez daitezala zildu nigan arein orriak.

Zu goragarria zara, Jaungoikoa [...].

12 Orregaitik, nire erregua entzuna da zure aurrean.

¿Nori geiago eskatuko dausat laguntza, emon daitan?

13 ¿Adan-en semeai, bearbada?;

¿nondik atarako dabe areik aal-izatea?

Nire ustea Jaungoikoagan dago!

14 Dei egin neutsan Jaungoikoari,  
eta Arek erantzun egin eustan.

Osatu egin eban nire biotz ausia.

15 Makurtu egin neban nire burua,  
loak artu nenduan [...], atsekabetuta nengoan [...]

## XXVI Salmua

*Salmu onek izatea ta beronen Egille guztiz  
aalsua goratzen dauz.*

*(Ez da agertzen 25garren salmua.)*

1 Aundia ta santua da Jaungoikoa!  
Santu-santua gizaldiz-gizaldi.

2 Aren aurrean aundi-izatea doa.

Aren atzean, ur aundien zaratotsa.

Ontasunak eta errukiak inguratzen dabe,

3 Egia, Auzia ta Zuzentasuna dira  
Aren aulkiaren ondopea.

Argia illunpeetatik banandurik  
sortu eban egusentia,

4 bere biotzeko jakintzaz.

Aingeruak, ori ikusi ebenean,  
pozez bete ziran,

eurak ez ekiena ikuserazo eutsen-eta.

5 Mendiak bizidun guztientzako  
alez eta janariz apaindu ebazan.

6 Bedeinkatua bere indarraz  
lurrari bizia emoten dautsan A,  
bere aal-izateaz mundua sendotzen dauan A!

Bere adimenaz zabaldu ebazan zeruak [...].

6 Atarazo egin dau aizea beronen kobetatik

*aitatzen dira, Jauretxearen garbikunde ta eskin-  
tzakoak izan ezik. Dabid-i ezarten yakozan  
izenburuak —jakituna, argia, doaz beteriko  
profeta—, Mesias aitatzen dabe, Mesiasi dago-  
kioz.*

### *Dabid, Jese-ren semea*

1 Dabid, Jese-ren semea, jakituna zan,  
eguzkiaren argia lako argia zan,

2 jakintsua, sakona ta osoa bere bide guztietan  
Jaungoikoaren eta gizonen aurrean,

3 eta Jaungoikoak espirtu argitua emon eutsan.  
4 Iru milla ta seireun salmu idatzi ebazan,

baita gorapen-abestiak be,  
egun bakotxean erre-opari betikorako  
altara-aurrean abesteko.

5 Urteko egun guztietarako,  
irureun eta irurogei ta lau idatzi ebazan.

6 Zapatuetako eskintzarako,  
berrogei ta amabi abesti.

7 Ilbarrietako eskintzarako,  
batzarretako egun bakotxerako  
eta oben-ordezko egunerako, ogei ta amar.

8 Abesti guztiak izan ziran berak bururatuak;  
laureun eta berrogei ta sei izan ziran guztiz.

9 Atsekabetuaren alde ereskiñen bidez lagunduak  
izateko abestiak,

lau bakarrik izan ziran.

Lau milla ta berrogei ta amar guztiz.

10 Gauza guztiak, Gorengoaren aurrean emon  
izan yakon

profeta-doaiaik eraginda esan ebazan.

## XXVIII Salmua

*Salmu onek Bibliako Samuel-en 1º liburuko  
16,7-garren ataltxoa azaltzen dau: "BaiñaJau-  
nak Samuel-i auxe esan eutsan: Ez begiratu*

*orren itxura eta luzeera aundia, ori alde batera  
itzita daukat-eta. Izan be, Jaunak ez dau gizo-  
nak lez begiratzen; gizonak gorputzaren itxurea  
ikusten dabe; Jaungoikoak, barriz, biotza."*

*Orixe da salmu-egilleak esan gura euskuna:  
orixe zala, ain zuzen be, Jaungoikoak Dabid-en  
biotzean ikusten ebana.*

*Barruko guzti au Mesis-en irudia da. Orrex-  
egaitik esaten yako Dabid-i "buruzagi",  
"nagusi"; berba oneik Mesiasen ezaugarriak  
dira.*

### *Dabid-en aleluia*

1 Nire anaietarik txikiena nintzan ni,  
nire aitaren semeetarik gazteena.

2 Berak izentatu nenduan bere artaldearen artzain  
eta bere aumen buruzagi.

Nire eskuz txilibitu bat egin neban  
eta nire atzamarrez lira bat,

3 eta Jaungoikoari aintza emon neutsan.

Auxe pentsatu neban nire barruan:  
Mendiak ez dautsoe autor egiten,  
mendikumeak ez dabe A iragarten,

zugatzak ots aundiaz daroetz nire berbak  
eta artaldeak nire egintzak.

5 ¿Nok iragarriko dauz, ba, nire egintzak?,  
¿nok abestuko ditu?, nok esango dauz?  
Munduaren jabeak ikusi dau.

6 Munduaren Jaungoikoak, Berberak, aditu dau.  
Berberak entzun dau.

Profetea bialdu eban ni igurtzitera,  
ni gora jasotera: Samuel.

7 Neure anaiak urten yakozan bidera:  
lerdenak oiñez ibilkeran,

itxura dotoreak, gorpuzkera garaiaik.

8 Arein adatsa / ederra zan,  
baiña ez ebazan Jaungoikoak aukeratu.

Neu billatzeko agindu eban,  
9 nik artaldea zaintzen niarduala,

eta orio santuaz igurtzi nenduan  
eta bere erriaren buruzagi

10 eta bere Alkartasuneko semeen artean  
nagusi egin nenduan.

11 Dabid-en egitsarien asierea,  
Jaungoikoaren profetak aukeratuta gero.

Orduan, [Dabid-ek] filistar bat ikusi eban,  
12 eta au filistaren taldetik aupadaka asi zan.

## AZKENA

*Ementxe amaitzen dira Kunran-go "Gorapen-abestiak" eta "Salmuak". Maitasunez eta gogo onez  
euskeratu doguz.*

*Alkartasun Barriko gai aundiak, batez be onbi- deratzearena eta Jaungoikoaren Espirituaren goi-  
eragiñari dagokion zintotasunarena, Itsaso Illa deritzan ertzetan asten dira.*

*Kristoren aurrelari dan Joan Bateatzaillearen ondoan, beste aurrelari-talde ez-ezagun eta  
bikaiñok be leku goragarrietan jarri bear doguz; geroago, basamortuko aretzan geratu ziran  
obiratuta.*

*¿Elduko ete-ziran bide barria benetan zein zan ikustera?*

*"Didajé" liburuak, Eliza jaiobarriaren antxiñene- tariko agiri bikaiñak, egiazten dauskunez,  
Kunran-go bakartietariko askok, euren politika ta erlejiño-tokitik atara eta Erroma-ra joputzat  
salduta, Uri aretan aurkitu eben Israel-en gogo suitsuz itxaron eben erantzuna.*

adats: cabellera.  
aicn-begi: yema (de la vid).  
aize-baltz: huracán.  
aize-kirri: brisa.  
aldarrikatu: clamar.  
amil-urak: torrentes de agua.  
antze-emoille: calculador.  
arau: norma, regla.  
arauz: según las normas.  
arreta: atención.  
ataza: celo.  
auldu: desfallecer.  
auziratzte: enjuiciamiento.  
azarti: atrevido.  
azartu: atreverse.  
azentzio: absintio.  
aziak: simientes.  
azpikari: conspirador.  
baruza: follaje.  
batzaldi: tiempo de la asamblea.  
berun: plomo.  
betsein: pupila.  
bezuza: regalo.  
biozperatasun: ternura, bondad.  
dendunetan: en equilibrio.  
destaiña: desprecio.  
doi: preciso.  
eden: veneno.  
egiazti: veraz.  
egitsari: proeza, hazaña.  
eiztari: cazador.  
eramaitza: gran tormenta.  
erdainbage, erdaindubage: incircunciso.  
eratará; a la manera de, conforme a.  
eregi: edificar.  
ernamin: germen.  
erraldoi: gigante.

## IZTEGITXOA

ertilari: artesano.  
etxakuntzak, etxekuntzak: edificaciones.  
eze: verde, no seco.  
ezetasun: verdor.  
garastada-urtegi: estanque de regadío.  
galdu: 1) perder; 2) réprobo.  
gauarbola (ms-Lond): ciprés.  
gere (B, arc.): oprobio, deshonor.  
gizailte: homicidio.  
goibeeratu: cimbrarse.  
itunpen: pacto.  
isekagarri: objeto de burla.  
jasan: sufrir.  
jitoan: a la deriva.  
jopuratu: esclavizar.  
kimu: brote, renuevo, pimpollo.  
landaratzte: plantación.  
lau: 1) cuatro; 2) sencillo.  
laketu: permitir, dejar.  
lakio: lazo, trampa, insidia.  
lazkar: costra.  
lotzaiki: ligamento.  
maitasarre: ternura.  
miritza: unguento.  
mustatu: catar.  
naiera: complacencia.  
noraezean: sin rumbo.  
oiartzun: eco.  
oldar: ímpetu.  
oldartsu: violento.  
ondope: estructura.  
oiñestun: grillete.  
oiñulari: consejero.  
ormatzar: muro, muralla.  
oroigailu: monumento.  
orritza: fronda.  
soin-burdiña: armadura.

## KEREXETA

txerketx: parásito.  
uaska: cauce.  
urgori: lava.  
ur-ii: junco.  
uzta: cosecha.  
zarta: vara.  
zelatan: en acecho.  
zemai: amenaza.  
zingira: pantano.  
zizel: cincel.  
zizelkatu: grabar con cincel.  
zumar: olmo.  
zurbillerazo: hacer palidecer.

## AURKIBIDEA

Kunran-go Esku-idazkiak .....	3
Kunran-go Gorapen-abestiak ... ..	5
Kunran-go Salmuak .....	32
Iztegitxoa .....	39

## OBRAS DE KEREXETA

### KEREXETA-REN IDAZLANAK

(A = Agortuta - Agotado.)

1. Orbelak (1959) (A).
2. Bitargi (1960) (A).
3. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-61) (A).
4. Apostoluen Egiñak (1961) (A).
5. Eguneroko Meza (Missale Romanum: 1963) (A).
6. Gogarteak (Aita Basabe-Kerexeta: 1963) (A).
7. Didaje eta Apostoluen Siniskitza (1965) (A).
8. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965) (A).
9. Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak (1965) (A).
10. Argi-bide Txikia (Zugasti-Kerexeta: 1965) (A).
11. Jesukristo gure Jaunaren Berri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1966) (A).
12. Jesukristoren Barri Ona (lau Ebanjelioak: 1966) (A).
13. Itun Berria (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe—Kerexeta—Zugasti: 1967; 2ª edición: 1974) (A).
14. Salmutegia (1967) (A).
15. Salmudia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti; 1968) (A).
16. Umeen Biblia (1969; 2ª edición: 1974; 3ª edición: 1982). (A).
17. Umeen Biblia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1969). (A).
18. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco (cinco volúmenes: 1970- 71-72 y 74).
23. Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun Barria: Ascea-PPCna: 1972).
24. Alkartasun Barria (Novum Testamentum, osorik; 2ª edición: 1972) (A).
25. Jesukristoren Barri Ona (2ª edición; bilingüe: 1973) (A).
26. Ebanjelio Alkartuak (1973) (255 orrialde, 300 pta.).
27. Kristau-Ikasbidea (4-garrena) (1974).
28. Eliz-Guraso Apostolikuak (Padres Apostólicos) (1975) (Premio "Agirre-Saria" en Baiona en 1976) (293 orrialde, 500 pta.).
29. Euskal-Biblia (Biblia completa) (1976) (1.500 pta.).
30. Mezako Irakurgaiak Euskal-Biblian (1976) (125 pta.).
31. Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko Erriaren Otoitza (1977) (300 pta.).

32. Diccionario Euskérico(1977) (150 ptas.).
33. Iparragirre´ren Bizitza(1978) (700 pta.).
34. Gernika´ko beste Arbola(1979) (650 pta.).
35. Orbelak, Bitargi(2ª edición), Udazken (bilingüe) (1980). (217 págs., 300 ptas.).
36. Elizearen Otoitza(1982) (270 orrialde, 300 pta.).
37. Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak Abade bagarik(1982) (150 pta.).
38. Bolibar (bilingüe: 1984) (333 págs., 800 ptas.).
- 39-40. Vascos en Colombia(2 volúmenes) (1985). (8.500 ptas.).
41. Casas Solariegas de Bizkaia(vol. I) (en orden alfabético) (1987). (343 págs., 1.500 ptas.).
42. Linajes y Casas solariegas de Elorrio(245 págs. de texto y 393 fotografías) (1988).
43. Lau Ebanjelioak(1988) (237 orrialde, 670 pta.).
44. Berrio-Otxoa(bilingüe) (1988) (texto y 34 fotos) (100 ptas.).
45. Fededunen Otoitza(1988) (47 orrialde, 160 pta.).
46. Casas Solariegas de Bizkaia II (por pueblos; incluido en el vol. VIII del "Diccion. Onom. y Heráld. Vasco") (1988).
47. Alkartasun Barria(1988).
48. Kenpis (Jesukristoren Antz-bidea) (1989)
49. Kunran (esku-idazkiak = manuscritos) (1989).

#### EN PREPARACION:

**Vascos en Ecuador.**

**Vascos en Perú.**

**Escudos Vascos**(de los siete territorios vascos;  
texto y dibujos; seis volúmenes).

Primer volumen: **Escudos de Bizkaia.**

Jaime de Kerexeta.  
Elizburu, 24.  
48230 ELORRIO (Bizkaia)  
Tel. 682 00 12